


Arrasate

P R E S S

1996ko
Matxoak 22
313. zenb.



Arrasate XIX. Makina- Erremintaren Feria

ALTZARIAK *Berango*

Sukalderako ekipamendu osoa

5 urteko
garantiaz

CARFRA
Altzari Banatzailea

- Bainu altzariak
- Armairu enpotratuak



Berangon, zure
nortasuna zure
sukaldean isladatzea da
gure erronka, guztien
artean ezberdina; zu
bezalakoa, bakarra.



Estratifikatutako sukaldeak, konbinatuak, ègurrean, dekape eta lakatuak.

Eta orain
erakusketa
handitu dugu,
mahai eta aulki
aukera paregabea
eskainiz.



ERAKUSKETA

Legarre Pabilioia, z/g

Gipuzkoa Etorbidea

ARRASATE

Tfnoa: 79 01 92

Norena da basoa, Wally?

Martxoak 8, ostirala. Zoritxarrez, ez noa emakumeen eskubideez hitzegitera. Arrasatera etorri bezain pronto, zaratak entzun eta Maala ingurura hurbildu nintzen. Izugarritzko prepotentzia poliziala (4 bat furgona), ohiko kamara(k) eta agure zein gazteei kriston jipoia. Ez da ez, lehendabiziko aldia, aurreko egunean eta baita aurrerago ere, pelotakadekin etab. eten baitzuten zenbait manifa; baina beraien "modus operandi"-a ikusteak, beti dakar amorrazio eta haserre handiagoa.

Badira dagoeneko urte dexente Arrasaten Ertzantza dagoela. Gorabehera asko izan bada ere, azkenengo egunetako gertaerak ez dira ohikoak, ez behintzat Arrasaten. Kronologikoki, Arrasateko Ertzantzak buruzagi berri bat dauka, Arevalo deituta, orain arte Oreretako arduraduna izan dena, eta hori kurrikulum "gutxi" bada ere, handitzeko asmoa dauka, agian.

Komunikabideak saiatu(ko) dira hau justifikatzen eta legitimatzen, beste hainbat eta hainbat lekutan egin izan duten bezala. Hortan datza, Arevalotik baino goragotik etorri(ko) den estrategia kriminalizatzailea. Jarrairekin gertatzen ari dena, adibidez. Hauei buruz argitaratutako "informazio" urriak, beti identifikatu

(lotu) nahi izaten ditu kaleko edozein istilu eta sabotaiekin, gizarte eta gazteen-ganako zenbait gai jorratzen dituen arrèn. Beraz, orain, adibidez Arrasaten poliziarren eta jendearen arteko biolentzia areagotzen bada, beraiek nahi duten kolorez margotuko dituzte gertakizunak.

Bukatzen hasteko, nire ustez izugarritzko errua da gaur egungo Ertzantzaren jokaera, ezer hobetu baino tentsio eta inpotentzia handia sortzen baitu. Ez dakit ba, bere buruzagi eta politikariek honetan zerbait egingo ote duten, baina egin beharko lukete.

Euskal Herrian, Europako polizia/biztanle tasarik handiena dago, 661 polizia 100.000 biztanleko; eta hau zoratzekoa bada ere, oraindik handitzea lortuko dute, eta baita hauen inpunitatea indartzea. Nola? adibidez aurpegia estalita eramanez; eta kaleko istiluak (beste kasu batzutan delikuentzia) exageratuz eta inflatuz, jendeari beldurra emanez, poliziaren hedapen eta bortizkeria onartu/ulertu? dezan.

Hau gutxi balitz, irakurri ezazue martxoaren 15ean, ostiralean Egineko "Gure gaia" atalean agertutako artikulua, Eusko Jaurlaritzako gastu polizial eta abarrez. Irakurri eta konparatu.

IKER BARANDIARAN

I
R
T
A
B
E
R
N
A
T
I

Ferrerias kalea
ARRASATE
Tfnoa: 79 56 11

Memesa
79 42 22



ARRASATEKO UDALA

Aldizkari honek Arrasateko Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailaren laguntza jaso du

• ARRASATE PRESS •

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tfnoa: 77 05 65. Faxa: 77 09 40

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Beñardo Kortabarria. **Kazetariak:** Maria Agirre, Itxaro Zubillaga, Maider Egües. **Publizitatea:** Jaxone Mendizabal eta Alberto Garro (77 08 15). **Administrazioa:** Ikeme Altube (Tfnoa: 77 08 15). **Maketazioa:** Goio Arana. **Kolaboratzaileak:** Arantzazu Loidi, Mikel Irizar, Blanca Jauregi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Juan Bautista Agorria, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Unai Loidi, Mikel Olabe, Nekane San Miguel, Karnele Perez, Sorginak, Kopti, Daniel Goikolea, Amaia Martiartu, Maite Martinez, Iban Astondoa, Haritz Larrinaga, Cesar Cimiano, Iker Letona, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre, Rafa mungia, Mario Egües, Rufina Olasagasti, Alazne Portu, Erdu-AEK euskaltegia. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaeta-AED. (Tfnoa: 77 12 28). © ARRASATE PRESS. Tirada: 6.200. **Logo-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertiatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oriati).



ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.
ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

.....
Ertzantza eta bideo kamaren diktadura

Ertzantzaren lehen promozioak Arkautetik irten zirenean eztabaida ugari izan zen bere eginkizunaren inguruan: batzuek, edozein polizia ziren tankerakoak zirela eta erreprimitzeko besterik ez zeudela; besteak, herritarrei laguntzeko sortuak izan zirela.... Izan ere, bertako jendea izateak polizia espainolak ez zuen zigilua ematen zion Ertzantzari eta itxaropen bat sortarazten zuen. Are gehiago, garai hartan Ertzantzaren sindikatuen adierazpenen arabera, Ertzantza ez omen zen Euskadi-Estatua gatazkan ETaren aurka joango eta irteera negoziatu bat defendatzen zuen.

Batzuk, hasieratik zera esaten genuen: Ertzantza, polizia guztiak bezalaxe, indarrean dagoen sistema mantentzeko indar koerzigarria zela. Eta, denborak arrazoia eman digu; Ertzantzaren lana, sistema honen bidegabekeriaren kontra mugitzen den edonorren aurka ihardutea da (kalean euren eskubideak aldarrikatzen dituzten langilegoa, ikaslegoa, intsumituak...). Metodo aldetik ere, nabaria da Gorputz honen arbitraltasuna, demokrazia eza, autoritarismoa; Juan Calvo 1993. urtean Ertzaintxetik zerraldo atera zutenetik euri asko bota du, baina ez onerako.

Ertzantza ez da herriarena, herri osoarena, ez lehen

eta ez orain. Jelkideek beti erabili dute euren interesak defendatzeko eta euren lan ilunak betetzeko (espioitza lanak, entzuketa telefonikoak...) eta euskal disidentzia kontrolatzeko. Kontrolari dagokionez, ohiko polizia baino kement handiagoa erakusten dute, gure ustetan; kontrol hori esparru guztietara eraman baitute: identifikazio kontrolak, kartelak hormetan kolatzen ari direnekin sartzeara, itxura "txarra" duten gazteak susmagarritzat hartzea, gazteen gaueko bizitza kontrolatzea....

Eta kontrol era bitxiena aipatzekotan, bideo kamaren erabilera aipatuko genuke, bitxiena eta, agian, arriskuetsuena. Kamera, tresna berritza iruditu ez arren, uste dugu balio handikoa dela Ertzantzarentzat; eta ez ekintza erradikalak, "gogorrak" kontrolatzeko, baizik eta borrokatzen duen jendea identifikatzeko erabiltzen duelako. Lehengo polizia, "sekreta" askorekin eta denbora luze joaten zen osatzen ezker militanteen datutegia, Ertzantzak bizpauru manifa grabatuz lortzen du informazio ezinhobea, gehiago eta denbora motzagoan, ondoren, pertsona horiekiko datu gehiago biltzeko estrategia diseinatuz. Horrela, esan dezakegu azken urteetan "borrokara" apuntatu den gaztedia ez dela bate-re anonimoa Ertzantzarentzat, aurpegi berri asko ditu jasota eta, beraz, izen-abizen asko. Grabaketak, gainera, elementu koerzigarriak dira, libreki manifestatzeko dugun

eskubidearen kontra jokatzeko baitute.

Guzti hau oso ondo ikasia du Ertzantza Buru den Arevalo jaunak, azken asteetan Arrasaten demonstratu duen bezala errepresioaren maixu trebea bilakatu delarik. Beraz, ez da harrizkoa gure herriko kaleetan *Adierazpen askatasuna!* entzutea, Francoren urte onenetan bezalaxe. Tamalgarría.

DEBA GARAIO ZUTIK

.....
Denok Zaldibira!

Gehienok jakingo duzue, aurtengo Aste Santutan apirilaren 4tik 6ra gazteok badugu non elkartu, Jarraik antolatuta Zaldibin Gazte Topagunea burutuko baita. Orain dela bi urte Etxarri burutu zen bezala, baina aurtengoan apustuak garrantzi handiagoa duelarik.

Gazte sektore guztietan lan egiten duen jendeak, intsumisioan, ikastetxeetan, gaztetxeetan, etabar. luze batean, bere iritzia emateak berebiziko garrantzia du, ekimen pilo bat aurrera atera ahal izateko. Ezin dezakegu Jarrai-ren Gazte Topagune bat bezala ikusi, gazte guztiak elkartzeko eta eztabaidatzeko marko ezinhobe bat bezala baizik (baina ez bakarrik).

Honela izanik, animatzen ditugu gazte guztiak bertaratzera, bai ondo pasatzera

bertan izango diren kontzertu, bertso-jaialdi, etab. eta bereziki gure eguneroko lanak denok ezagutu, landu eta batera aurrera eramateko.

Zoritzarrez aurtengoan ere jende askok ezingo du bertan egon euren gogoaren aurka, hauetako bi Haritz eta Ibai ditugu. Atxiloketen Egunean gorridunek guk antolatutako manifestazioa (errepresioaren aurkakoa) errepresioaren sakabanatu zuten, ondorioz egondako istiluak euren erantzukizun izan zirelarik, baina gazte izateagatik eta toki txarrean egoteagatik gorri jantzitako "persona" batzuen montajearen ondorioz Martutenen espetxeratuak izan dira.

Bertan (Zaldibin) ere euren etxeratzea eskatuko dugu eta horren alde borrokatuko dugu.

Errepresio basatiaren gaitetik, gaztedia aurrera!!

ARRASATEKO JARRAI

Oharra


Zure iritziak gure gutunen sailean argitaratu nahi badituzu, izan itzazu kontutuan honako baldintza hauek: Testua ez dadila 20 lerrotik gorakoa izan. Sinatzearekin izena eta telefonoa adierazi, nahiz eta argitaratzeko orduan gaitzizen edo inizileaz argitaratzea nahi izan. Kontuan izan identifikatu barik datorren gutunik ez dela argitaratuko.

GORKA
 ILEPAINDEGIA
 SOLARIUMA
 Ferrerías, 35 ARRASATE
 Tfnoa: 77 13 78

PEUGEOT
 Salmenta eta zerbitzua
IBABE GARAJEA
MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA
 Gesalibar auzoa, z/g. Tfnoa: 79 99 61 ARRASATE

ITSASKI
 ARRANDEGIA
 Arrain freskoa eta jaki izoztuak
 Uribe Auzoa
 ARRASATE
 Tfnoa: 79 98 94

Jarraitzen dituzu herriko kirol taldeak?




Iker San Vicente
Ikaslea
(21 urte)

Ez ditut jarraitzen, kirole-
tan ez nago oso sartuta.



Itsaso Berezibar
Ikaslea
(19 urte)

Ez, ez asko, baina futbo-
la eta saskibaloia gustatzen
zaizkit.



Jose Heriz
Jubilatua
(67 urte)

Bai, futbola eta pilota par-
tiduak gehien, baina beste
guztiak ere bai eta betidanik
guztatu izan zaizkit.



Milagros Egaña
Etxekoandrea
(56 urte)

Ikustera ez naiz joaten,
baina Mondra eta Urbina Mal-
tzagaren zaletua naiz.



Manuel Sanchez
Jubilatua
(61 urte)

Pixka bat, gehienbat fut-
bola, gustatzen zaidalako.



Puri Blanco
Etxekoandrea
(54 urte)

Batzuetan bai, gustatzen
zaidan gehiena futbola da.



Olatz Areitiaurtena
Ikaslea
(20 urte)

Nire herrian eskupilota eta
txirrindularitza jarraitzen ditut.
Beste kirolean ez dago gau-
za askorik.



Eguzne Altube
Erizaina
(25 urte)

Bakarrik nire herriko men-
di taldea gustatzen zait, bes-
teak ez.

Jesus J. Giraldo

Liseriketa aparatua

• Lagun-Aro • PREVIASA • Foru Aldundia • Partikularrak

Astelehenetik ostiralera arratsaldeko 4,30etatik 8etara.

Loramendi kalea, 6 Eguzki dorrea, 2.B Tfnoa: 79 04 14 ARRASATE

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak
 Arrasateko Eskualde-Ospit.79 53 00
 Igualetoia79 05 00
 Santa Agedako Ospitalea
 (gizonak)79 39 00
 (emakumeak)79 44 11
 Buru osasunerako zentrua79 90 11

Gurutze Gorria
 Bergara76 55 76

DYA
 Antzuola76 62 91

Anbulatorioak
 Arrasate (Larrialdiak)79 13 57
 • Txanda hartzeko: medikuntza
 orokorra eta pediatria77 03 46
 • Espezialitateak77 05 78
 77 12 64
 Oñati78 08 52
 Eskoriatza79 98 58
 Arexabaleta79 74 58
 Aramaio (945) 45 51 16

Anbulantziak
 Gipuzkoako ambulanziazki45 87 44

Udaitzaingoa
 Oñati78 04 11
 Bergara76 14 69
 Arrasate79 14 39
 Arexabaleta79 10 52
 Eskoriatza088

Ertzaintza
 Arrasate79 71 99

Suhiltzaileak
 Udal taldea79 09 00
 Udal taldeko suhiltzaile burua79 20 72
 Zubillagako Eskualde-Parkea088

Matxurak
 Urak (udal zerbitzua)79 09 00
 Elektrizitatea (Iberduero)12 01 62
 Gasak900 40 05 23
 79 78 44
 79 76 78

Garraioak
 Taxiak79 12 22
 P.E.S.A.79 14 19

Hirugarren adinekoendako zentruak
 Iturbide Egoitza79 72 11
 Abaroa jubilatuaren egoitza79 81 57

Kontsumitzailearendako informazioa
 KIUB-OMIC79 51 55

Monterrongo liburutegia
 Monterron77 01 05

Irratia
 Arrasate Irratia79 58 77

22 OSTIRALA

- **ZINEA**
 "Asesino del más allá" 7.30etan eta 10etan.
- **ASANBLADA**
 Asanblada Seberon arratsaldeko 7etan Gestorak antolatuta.
- **KONTZERTUA ARRASATE MUSIKALEN**
 Arrasate Musikaleko orkestraren kontzertua arratsaldeko 6.30etan areto nagusian.
- **NACION REIXA ETA ELKOROBARRUTIA AMAIA ANTZOKIAN**
 Nacion Reixa eta Elkorobarrutia taldeen kontzertua Amaia antzokian gaueko 10etan. Sarrera: 500 pta. Gaztemania eta Arrasateko udalak antolatuta.
- **KONTZERTUA ESKORIATZAN**
 Gorosarri abesbatzak Madrilgo kamarako orkestrarekin batera kontzertua eskainiko du Eskoriatzako parrokiaren gaueko 10etan.

23 LARUNBATA

- **ZINEA**
 "Sabrina" 5etan, 7.30etan eta 10etan.
- **LUDOTEKA IBILTARIA**
 Txatxilipurdiko ludoteka ibiltaria Musakolako alkatetzan goizeko 11etatik ordubata arte. OHOk lehen mailatik 8. maila arteko ikasleentzat.
- **ERGUIN HERRI ESKOLAKO ASTE KULTURALA**
 Goizeko 9.30etan kiroletako finalak. 10etan haur krosa 3 urtetik 4 urte bitartekoentzat. 11etan Shanbo taldea. 12etan Gimnasia erritmikoa eta karatea. Goizeko 10etatik ordubata arte ikasleen lanen erakusketa eta argazki erakusketa.
- **BILERA KIROLDEGIAN**
 Iturripe eta Musakolako kiroldegietako futbol, tenis eta squash kantzak alokatzeko interesa dutenentzat bilera goizeko 11etan, Musakolako kiroldegian.

24 IGANDEA

- **ZINEA**
 "Sabrina" 5etan, 7.30etan eta 10etan.
- **BESAIDEREKIN MENDIIRTEERA**
 Ibilbidea: Mañaria, Arrietabaso, Sabigain, Urkiola eta Atxarte. Irteera goizeko 7etan Garibaitik.
- **IBILALDI NEURTUA BESAI-DEREKIN**
 Arrasateko neska mutilentzat goizeko 8etan irteera Garibaitik. Bailara osoko parte-hartzaileak Kanpazarren elkartuko dira goizeko 8.30etan. Nagusiendako Ibilbidea Kanpazar, Besaide, Tellamendi eta Garagartza. Gaztetxoentzat Kanpazar, Besaide eta Garagartza.
- **ZIKLOTURISTEN IRTEERA**
 Arrasateko zikloturisten irteera. Ibilbidea: Arrasate, Bergara, Soraluze, Maltzaga, Elgoibar, Altzola eta Arrasate, 52 kilometro. Irteera goizeko 10etan Monterondik.
- **ESKUALDEKO MANIFESTAZIOA**
 Euskal Presoak Euskal herrira lemapean manifestazioa arratsaldeko 7etan Seberon hasita. Gestorek antolatuta.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala 22
 Egunez eta gauez: Corcuera. Musakola.

Larunbata 23
 Egunez eta gauez: Itizar. Erguin.

Igandea 24
 Egunez eta gauez: Amezua. Santamaina.

Astelehena 25
 Egunez eta gauez: Ruiz. Maala.

Asteartea 26
 Egunez eta gauez: Morales. San Andres.

Asteazkena 27
 Egunez eta gauez: Azkoaga. Ferrerías.

Osteguna 28
 Egunez eta gauez: Español. Iturriotz.

ERAKUSKETA MONTERRONEN

Martxoaren 31ra arte Beni Uzkiaren zuzendutako eskulan tailerren erakusketa Monterronen. Ordutegia: egunero arratsaldeko 6etatik 8ak arte. Larunbat eta jaiegunetan 12etatik 2ak arte eta 6etatik 8etara.

EUSKAL DANTZEN IKASTAROA

Mutilei zuzendutako euskal dantzen ikastaroa apirilaren 15ean hasiko da, astelehenero arratsaldeko 6.30etatik 7.30ak arte, 6 urtetik 10 urte bitarteko mutilentzat. Lore Gazteak dantza taldeak antolatuta.

GAZTE TOPAGUNEAK ZALDIBIN

Apirilaren 4tik 6ra Jarraik antolatutako Gazte topaguneak Zaldibin. Bertara joateko bonoak salgai Ekaitz eta Irati tabernetan. Prezioa 3.500 pta. Topagunetara joateko autobusak goizeko 10etan irtingo du Garibaitik.

25 ASTELEHENA

- **ZINEA**
"Sabrina" 7etan eta 9.30etan.
- **ODOL EMATEA**
Arrasateko anbulategian arratsaldeko 4.30etatik 8ak arte.
- **PALESTINARI BURUZKO HITZALDIA**
Gaia: Palestina. Arratsaldeko 7.30etan Monterronen. Askapenak antolatuta.
- **KONTZENTRAZIOA**
Euskal Herria Askatu lemapean kontzentrazioa Herriko plazan arratsaldeko 7.30etan.

26 ASTEARTEA

- **ZINEA**
"Sabrina" 7etan eta 9.30etan.
- **ODOL EMATEA**
Arrasateko anbulategian arratsaldeko 4.30etatik 8ak arte.
- **ENKARTELADA**
Enkartelada Seberon arratsaldeko 7etan. Senideak antolatuta.

27 ASTEAZKENA

- **ANTZERKIAREN NAZIOARTEKO EGUNA**
- **S.F. XABIER IKASTOLAN HITZALDIA**
Gaia: Nola estimulatu gure semalabak?". Hizlaria: Mireia Arregi Logopeda eta haur hezkuntzan aditua. Ferixalekuko aretoan arratsaldeko 6etan. Aurre hezkuntzako gurasoei zuzenduta.
- **TXISTU KONTZERTUA**
Txistu kontzertua Arrasate Musikaleko goiko aretoan arratsaldeko 7.30etan

28 OSTEGUNA

- **EMAKUME ZINEGILEAK**
"El interior de la ballena" Amaia antzokian gaueko 9.30etan. Sarrera 400 pta. eta gazte txartelarekin 350 pta.
- **EKINTZA AKADEMIKOA**
1.995eko Industri Injineru teknikoen promozioari eta sistemen injineruen I. promozioari diplomak banatzeko ekitaldi akademikoa egingo da eskola Politeknikoko Areto Nagusian arratsaldeko 5.30etan.
- **EKINen BATZAR OROKORRA**
Arratsaldeko 7etan EKIN elkar-tearen batzar orokorra AEDko lokalean.



HIRU HANDIAK HIRU EGUNETAN
Apirilaren 11, 12 eta 13an hiru handiak hiru egunetan (Aitzgorri, Anboto eta Gorbea) AEDk antolatuta. Gatzagan eta Urkiolan egingo dute lo. Izenematea AED edo Gazte bulegoan apirilaren 9a baino lehen. Prezioa: 3.500 pta.

**KGB SAIOA
ARRASATE IRRATIAN**

Ostiralero gaueko hamarretatik aurrera KGB saioa entzuteko aukera izaten da Arrasate Irratian. Gaurkoan hileroko zozketa berezia: Super turbo pad, BIP informatikak emandako saria.



PALESTINARI BURUZKO HITZALDIA MONTERRONEN

Palestinari buruzko hitzaldia izango da astelehenean Monterronen. Hitzaldia Askapenak antolatu du eta arratsaldeko 7.30etan hasiko da.

“Trantsizio egoeran gaude. Autonomi Elkarteak Europar Batasunean dagoenez, gure lantegien merkatu naturala merkatu europarra izango da. Ondorioz, lantegiek ingurune irizpideetan oinarrituta ekoizten hasi beharko dute. Kontsumitzaileak eta merkatuak berak eskatzen du geroz eta era garbiagoan ekoiztea. Inork ezin du ahaztu, horrek askotan inbertsio handia egitea eskatzen duela, baina inbertsio horiek bi alde izan ditzake: etorkizunaren inbertsioa dira alde batetik; bestetik etorkizuna bizi nahi duten enpresek ingurugiroan inbertitu beharko dute.

Lehen iharduera industrialak ingurunean zuen eraginez arduratu beharra geneukan, orain ardura errekurtsio naturalak produkzio moduan ezartzen ari diren mugetatik datorkigu. Gainera badakigu kalitate osoko enpresa gestio baten barruan derrigorrezkoa izan behar du ingurune-gestioaren arloak”.

Esther Larrañaga, 1996ko urtarrila. **Biltzar**

“Poliki poliki kontzientzia aldatuz joan beharra dago herri txiki hauetan. Hiriburutara goazenean, inori ez zaio burutik pasatzen aparkaleku bila hastea; alderantziz, aparkaleku jakina dagoen tokira jo eta oinez ibiltzen gara. Herri txiki hauetan, ordea, oso ohitura txarra daukagu, eta kafea hartzeko ere ate bertaraino joan behar izaten dugu kotxez”.

Jose Luis Etxeberria, “Porru”, 1996ko martxoa. **KONTZEJUPETIK**

“Aretxabaleta, Euskal Herriko hainbat herri bezala, ez da herri bat, bi dira. Taberna bi ibilbide daude, bi kale gune, bi lagun talde. Demokratena eta Herri Batasunakoen, odolarenak (...)


Arrasaten, hemen ondoan, HBko neska batek lantegian izara bat jarri zuen aldamenen zegoen sozialista ez ikusteko”.

1996-3-5.

ABC

Aurrera begira zeintzuk dira ARKoren asmoak?

Hiru hildo nagusi finkatu ditugu aurrera begira. Batetik, autofinantziazioa indartzen ahaleginduko gara, nahiz eta azkenaldian goruntz egin duen. Azken bi urteotan Udaletik jasotzen ditugun laguntzak ez dira gehitu, baina gastuak eta sarrerak parekatzea lortu dugu. Esan bezala, publizitatearen alorra lantzen jarraituko dugu, baina horretan ere goia jotzeko arriskuak dago.



Joxe Jaime Bengoa
ARKoren lehendakaria

Bestalde, epe luzerako plan-gintza bat prestatzeko asmoak dugu. ARKO hazi egin da eta dagoeneko finkatuta dagoen medioa da. Hasieran euskara bultzatzeko tresna bezala ikusten ziren ARKoren komunikabideak, baina hori onartuta dago eta orain, zerbait gehiago eskatzen zaie. Beraz, hausnartu egin beharko da orain arte moduan eskola izaten jarrai dezan nahi dugun, edo bestela, profesionalduz joango den. Hori bai, betiko helburuak bultzatzen ere jarraituko dugu.

Hirugarren egitasmoak, berriz, egoitzarenak eta irratienak dira. Laster egoitza berria izango dugu, eta baliteke txoko berrian irratiarekin batera egotea. Multimedia antolatu nahiez, irratienekin bat zelan egin ikusi beharko dugu.


Bukatzeko aipatu telebista legea onartu denez, ATB legaltasunean jartzea izango dela helburua. Legez telebista existitzen ez denez, Jaurilaritza eta Diputaziotik ez dugu dirurik jasotzen. Legean sartuz gero, beste diru iturri batzuk jasotzeko aukera izango dugu.



AKELARRE
Gozotegia

**ORAIN AKELARREN
GOSARIAK GOIZEKO
7.30etatik AURRERA!**

**Gure betiko
ohiturei
tinko eutsiz**



Txokolatzeko
Pazko
arraultzak

Zarugalde, 54 • Tfnoa: 77 00 71 • ARRASATE

Karapaixoak

Euskadiko Kutxak irabaziak handitu

Ostiralean Batzar Orokorra egin zuen Euskadiko Kutxak. MCCko entitateak 12.053 milioi pezeta irabazi zituen 95ean, beraz %12,6ko hazkundea izan zuen. Bilakaera egokia, sektoreak bizi izan duen hobekuntzaren testuinguruan kokatu dute Euskadiko Kutxako arduradunek.

Bezeroei zerbitzu hobea eskaintzeko, iaz arratsalde ere atek zabaltzeari ekin zioten sukurtsal batzuk, eta ordutegi berriak arrakasta izan duela azpimarratu zuten. Iaz, gainera, sukurtsal sarea gehiago zabaldu zen, eta dagoeneko 230era igo da kopurua. Errioxako Kalahorra herrian zabaldu zuten bulego berria.



1996ko egitasmoak onartu ARKOk

Asteartea aukeratu zuen ARKOk urteko batzarra egiteko. Bideo bidez, iazko urtean egindakoen errepasoa azaldu zen. Ondoren, 96rako finkatu diren egitasmoen berri eman zuen J. J. Bengoak, lehendakariak. Bengoak esan zuenez, aurtengo urtea emankorra izango dela espero da. Egitasmoen inguruan, medioen audientzia ezagutzeko inkesta bat egiteko asmoa dagoela jakinarazi zen. Horrez gain, aurrekontuak onartu ziren eta Zuzendaritza Batzorderako kide berriak izendatu.

behin behineko askatasunean aske utzi ditu bi gazteak, eta hilabete batzuk barru epaiketa egingo da. Dagoeneko hainbat lekuko lortu dituzte kasua daramaten bi abokatuek.

Arrakastatsua hitzaldia

Jende ugari hurbildu zen astelehenean, Ekin elkarteak antolatu zuen hitzaldia entzutera. Bulimia eta anorexia gaisotasunen inguruan hitzegin zuen Junkal Aizpiolea psikologoak. Psikologoak azaldu zuenez, gaur egun gorputz argalak daude modan eta horrek asko eragiten du. Horrez gain, beste arrazoi batzuk ere badaudela aipatu zuen.

Abeltzainen batzarra

Degabel, Deba Garaiko Abeltzainen Elkarteak, iazko urtearen errepasoa egin zuen joan den domekan. Elkarteak dituen 600 bazkideak batzarrera hurbildu ez baziren ere, hainbat lagun izan zen Aretxabaletako bileran. Aurreko urteetan abeltzaintzak goraka egin bazuen ere, azken urteotan behera egin duela azaldu zuten batzarrean. Aurtengo egitasmoei begira, eskaintzen duten zerbitzuaren kalitatea jeitsi barik, helburua gastuei eustea dela aurreratu zuten.

Intsumisioa atxilotu

Joseba Korta arrasatearra atxilotu zuen Ertzantzak zapatuan, intsumisio izateagatik. Zapatu goizean, lanetik zetorrela, istripua izan zuen Josebak. Atestatua egitean, arrasatearra atxilotzeko agindua zegoela konturatu ziren ertzainak, epaiketa egin behar ziotenean Joseba ez zen-eta epaiketara azaldu.

Astebukaeran Arkauten atxilotuta egon zen 24 urteko arrasatearra, eta astelehenean epaitu eta libre geratu zen. Bi urte, lau hilabete eta egun bateko zigorra ezarri dio epaileak.

Ibai eta Haritz aske

Ibai Garai arrasatearra eta Haritz Oianguren atxabaltarra aske geratu ziren asteartean. Astelehenean epailearen aurrean deklaratu zuten atxilotetako egin zituzten hiru ertzainak, eta euren bertsioa entzun ondoren epaileak aske utzi ditu. Usobiaga abokatuak, Haritzen kasua eraman duenak adierazi duenez, istiluei buruzko atestatuan ertzainak ziurtzat jotzen zuten bi gazteak izan zirela koktelak bota zituztenak. Epailearen aurrean, berriz, ziur ez zeudela adierazi ei zuten ertzainak. Epaileak

JAIOTZAK

- Asier Sanchez Jimenez. Martxoaren 1ean.
- Oier Arizabaleta Irure. 2an.
- Leire Ane Retegi Schiettekatte. 5ean.
- Qeila Coscojuela Aranburu. 7an.

EZKONTZAK

- Domingo Mateos Vicente eta Niala Martin de Vito. Martxoaren 13an. Zibilez.

HILDAKOAK

- Alejandra Fradejas Gutierrez. Martxoaren 13an. 69 urte.
- Jesusa Uranga Arregi. 14an. 71 urte.



MARKO-JARTZEAK


ALDEDI

Biteri, 8 • ARRASATE
Tfnoa: 79 13 05 • Faxa: 79 13 84



- Garbitasun orokorrak eta mantenimendua: etxebizitzak, atariak, dendak, bulegoak, kristalak, etab.
- Edozein zoru motari dizdira ateratzea.

Santana auzoa, 4 etxabea Tfnoa: 71 48 45 ESKORIATZA



* Antton Del Campo

Urte bisiestoa (Bi seigarrena)

Dakizenez, 1996. urtea bisiestoa da, hots, otsailak 29 egun ditu.

Hau lau urtean behin gertatzen da eta hurrengo bisiestoa 2000. urtea dugu.

Erromatarren garaian (orain 2.000 urte inguru) urte ofizialak gaur egun bezala, 12 hilabete zeuzkan, baina 355 egun bakarrik.

Urte naturalak (lurraren bira osoa eguzkiaren inguruan) berriz 365'25 egun dauzka gutxi gorabehera.

Horregatik, eta baita ere garai hartako enperadoreek beren interesak (zergen kobraketak batez ere) babes-teko antolatzen zituztelako egutegi aldaketak, urtaro naturala (udaberria etab.) eta egutegi ofiziala, martxa guttiz desberdinez ibiltzen ziren.

Gutxi gorabehera urte naturala, ofiziala baino 85 egun (hiru hilabete inguru)

aurretik zihonan.

Venus jainkosaren festa, apirilaren 1ean ospatzen zen egutegi ofizialari jarraituz, lehen loreak zabaltzen zirelako, eta edertasunaren jainkosari eskaintzeko; baina jadanik lore guztiak lehortuta zeuden. Uzta jaiak ospatzen zirenean ere, garitegi gehienak beteta zeuden dagoeneko, etab.

Julio Kesar enperadoreak hartu zuen bere gain nahas-

.....

“Erromatarren garaian (orain 2.000 urte inguru) urte ofizialak gaur egun bezala, 12 hilabete zeuzkan, baina 355 egun bakarrik”

keta hau konpontzeko ardurara. Horretarako urte hartan (“galdutako” 85 egun haiek berreskuratzeko) 15 hilabete jarri zituen, eta urte bisiestoak asmatu zituen ere. Handik aurrera otsailak (februarius) 28 egun edukitzen zituen, baina lau urtean behin 29 izanik. “Nahasketaren urtea” deitu zioten urte arraro hari.

Erromatarrek, atzetik aurrera zenbatzen zituzten egunak, guk ere noizean behin orduekin egiten dugun legez. Hogei zortzirako esaten dugunean, zortzirak izateko hoge minutu falta direla adierazi nahi dugu; zortzirak hoge gutxi modu normalagoan esanda.

Gaur egun, otsailak 23 esaten dugunean, 6 egun falta dira martxoa ailegatzeko, eta erromatarrek “sei martxorako” esaten zuten (sexto die ante calendas martias).

Gaur egun lau urtean behin, goian esan dugun bezala, otsailari egun berri bat erantzten diogu, 29.a alegia.

Julio Kesarrek aldiz, lau urtean behin otsailaren 23. egunaren ondotik beste 23. bat errepikatzen zuen, eta hortik dator 23 bigarren egun horren izena, bi seigarren martxorako, eta latinez “bi sexto die ante calendas martias”.

* INJINERIA

USTEAK USTE

GUGGENHEIM-EKIN BUELTAKA

Lehen aldiz Bilbon Guggenheim museoa egin behar zela argitaratu zenean, izan ziren alde eta aurkako kritikak (azken hauetakoak gehiago, egia esan).

Ordutik hona ez da izan berri handirik bere inguruan, nahiz eta eraikuntza lanak aurrera zihoazela jakin, ez zegoen inolako informaziorik, ez administrazio aldetik ez beste inondik antolakuntza, finantzazioa eta beste hainbat punturi buruz. Esan dezakegu ia gogoratu ere ez ginela egiten dontzuzko museoaz, baina hara non, berriz ere, eguneko gaia bihurtu zaigun.


Izan ere New Yorkeko Fundazioak eginiko “proposamenak” aztertzen baditugu eta bertan susmatzen ez genuenik ezer ez bada agiri ere, benetan kezkatzeko modukoa da. Garbi ikusten da Bilboko honek New Yorkekoaren aginduak, barkatu “proposamenak”, bete besterik ez duela egingo, eta harek finkatutako ardatza jarraituko duela, bai eratze arloan zein arlo artistikoan, bertako errealitatea kulturalarekin zer ikusi gutxi izango duelarik, eta hemengo arteak parte hartzeari oso parte hartze eskasa eskainiko zaiolarik. Hau da, kolonialismo hutsa izango da, eta bitartean bertako arte lanak jasoko dituen benetako museorik gabe jarraituko dugu. Eta guzti hau, ez dezagun ahaztu, diru (dirutza) publikoa erabiliz, beste zerbaiti (euskal kulturalen sustapenari akaso?) kenduko zaiona.

Hala eta guztiz ere gauza bat ez dut zalantzan jartzen: bertan erakutsiko diren obren kalitatea. Baina horretaz aparte, muntaia honek ba al dauka zer ikusirik artearekin?

AMAIJA JAUREGI-ARRABURU



Elektroinjekzio
Zerbitzua



ARRASATE KONPONKETAK

Zaldispe kalea, 5 Tfnoa: 79 95 41
ARRASATE



Joan den domekan berriz ere Musakolako aparkalekuan akanpatu zuten ijitoek.

Uste baino urrunago heldu da ijitoen auzia

Datorren asteartean SOS Arrazakeria eta Gipuzkoako ijitoen elkarteko kide batzuk Arrasateko Udalera etorriko dira, Musakolan akanpatzen duten ijitoekin sortu den arazoari irtenbidea aurkitzen laguntzera.

Agustin Unzurrunzaga, Gipuzkoako SOS Arrazakeriako kidearen esanetan, "ez dut iritzi bat eman nahi, egunkarietan irakurrita enteratu naiz-eta Arrasaten gertatutakoaz. Lehenengo Udaleko arduradunekin hitzegingo dugu, arazoa ondo ezagutzeko. Garbi dagoena da ijito horiek bizi izateko eskubidea dutela, eta onartezina da kanpora botatzea. Arazoak sortzen badituzte ikusi egin beharko da zein arazo sortzen dituzten eta zein irtenbide eman diezaiotegun. Ijito taldeak zein behar duen ikusi behar dugu, eta horretarako, ijitoen elkarteko kideak eurekin harremanetan jartzea litzateke onena. Hori bai, ezin dugu ahaztu bertako bizilagunei arazoak sor diezaiotetela ijitoek, baina horiei irtenbidea aurkitzen ahalegindu behar dugu".

Joan den domekan berriz ere etorri, eta astelehenean alde egin zuten Musakolatik ijitoek. Ijitoak bueltatu zirela ikustean Zigarrolako bizilagun batzuek idatzi bat atera zuten, ijitoen jarrera salatu eta Udalak ezer egiten ez badu protesta ekintzak egingo dituztela aurreratuz. Astean, sinadurak biltzen hasi ziren eta 825 inguru bildu ondoren asmoa atzo ostegun, alkateari eramatea zen.

Astelehenean bestalde, Euskal Herriko Giza Eskubideen Aldeko Elkarteak arartekoari Arrasaten gertatutakoa ikertzea eskatu diola jakin zen. Elkarte horren ustez, herrian ez dira gutxieneko giza eskubideak errespetatu. Gainera, euren arduraz adierazteko Arrasateko alkateari idatzia zuzendu diotela jakinarazten zen, baina Udalean ez dute elkarte horren idatzirik jaso. Aipatutako elkartearen jarrera salatzeko, Zigarrolako bizilagunek beste idatzi bat plazaratu zuten asteartean. Arazoa ezagutu barik iritzia ematea leporatzen zitzaion giza eskubideen elkarteari.

Bidea konpondu

Takolotik Mugarrittera doan bide zatia konpontzea erabaki du Gipuzkoako Diputazioak. Konponketa lan horiek egiteko 33 milioi gastatzea aurrikusi du Foru Aldundiak. Orain lehiaketa deitu eta obra adjudikatuko zaio eskaintza onena egiten duenari.

Uraren gestioa

Orain arte alde sarean mantenimendua bakarrik eramandu du Gipuzkoako Uren Partzuegoak, baina aurrerantzean baja sareena ere eramango du, hau da, herritik etxeetara banatzen dena. Gainera, saneamenduaren ardurara ere bere gain hartuko du, beraz, etxeetako urak ez dira zuzenean ibaira botako. Baja sarean gestioa eramateko enpresa mixtoa eratuko da, diru publikoaz eta pribatuaz osatuta egongo dena. Enpresa pribatua aukeratzeko lehiaketa deitu du Uren Partzuegoak.

Lekuko bilaketa

Joan den astelehenean, Osintxuko bidegurutzean gertatu zen istripua ikusi zuten lekuko bilaketa dabil Ertzantza. Istripuan, 31 urteko Eibartar bat hil egin zen. Santander matrikuladun kamioi bati zama jausi, eta aurkako karrilera pasatu zenean gertatu zen istripua. Gertakizuna ikusi zenutenok 29 02 11 telefonora deitu.

egizabal
poltsak • oinetakoak


Ferrerias, 9
ARRASATE
T9 66 01

Bidekurutzeta, 13
BERGARA
76 12 28

Aurrekontu propioen aukera lantzen hasi dira EAJ, PSE-EE eta EA

Aurrekontuak finkatzeko orain arte Hazienda Batzordean egin diren bileretan parte hartu badute ere, EAJ, PSE-EE eta EA alderdiak ez dira azken batzarretara hurbildu, eta beraien aldetik aurrekontuak egituratzen hasi dira. Oraingoz pare bat bilera baino ez du egin hirukoak.

Blanca Roncal, zinegotzi sozialistaren esanetan, "ez dakigu gai batzuen inguruan emendakinak aurkeztu, emendakin garrantzitsua egin edo aurrekontu alternatiboa egingo dugun. Oraingoz, aurrekontuak finkatzeko egin den laugarren zirriborroa aztertzen ari gara. Udalaren zorra ez gehitzea da asmoa, eta irizpide horrekin diru mozketak zein arlotan egin erabakitzen



96ko aurrekontuen eztabaida prozesua luze joango dela pentsa daiteke.


ari gara. Gainera, hasiera batean hiru alderdiok aurrera eraman beharreko gai batzuk finkatu genituen, eta horiek ere aurrekontutan sartzeko asmoa dugu". Zinegotzi sozialista-

ren berbetan, batez ere hiri-gintza arloko gaiak izan dira, hiru alderdiek batera aurrekontuak eztabaidatzen hasia eragin dutenak.

Ino Galparsoro, Hazien-

da Batzordeburuak azaldutakoaren arabera, atzoko egunez, ostegunez, gobernu kideek bilera egin behar zuten egotera berriaren balorazioa egiteko. "Aurrekontuak eztabaidatzen aritu gara, eta orain epe bat zabaldu da emendakinak aurkezteko. Emendakinak gertu izandakoan gai plenora eramateko moduan egongo da".

Aurtengo aurrekontuen eztabaida aspaldi hasi arren, eta otsaileko plenoan onartzea aurrikusi bazen ere, 96ko aurrekontuen prozesuak luze joko duela pentsa daiteke. Aste Santu aurretik plenora eramatea ezinezkoa izango da, eta ikusi egin behar apirilekoan ere aurkeztu ahal izango diren.



WERU®
Ate + leihoak



Markulete Industrialdea, 20. pabilioia
Tfnoak: 79 24 12 eta 79 97 95 ARRASATE



Salterain

Ezagutu itzazu PVCren bitartez gaur egun eskura dauzkazun leiho miresgarriak, ez hotzik, ez berorik, ez soinurik...



Baserriko produktuen salmenta bultzatu nahi du Udalak.

Baserriko produktuen salmenta bultzatzeko asmoa

Arrasateko Udalak inkesta bat egingo die azokara etortzen diren baserritarrei, zer saltzen duten eta zapatuetan ere azoka egongo balitz etorriko liratekeen jakiteko besteak beste. Udalaren asmoa, baserriko produktuen salmenta bultzatzea da, baina lehenengo informazioa eduki nahi du. Azokara etortzen direnei ezezik, gainontzekoei ere egingo die inkesta Udalak. Azokan txoko bat libre dagoenez, baserritarrei uzteko aukera aztertzen ari da Udala, eta horrela, baserriko produktuak saltzeko postu finko bat izango lukete.

Horrez gain, Deba Garaiko Mendi Neza-

ritzak Elkarteak prestatu duen inkestari ere erantzun beharko diote Deba Garaiko 100 baserritarrek. Elkartea auzo alkateekin harremanetan jarri da, barazkiak eta fruituak auzoko zein baserrietan ekoizten diren jakiteko.

Barazkiak poteetan sartu eta fruituekin mermeladak egiteko lantegia antolatzeke asmoa du elkarteak Leintz Gatzagan. Horregatik, proiektu horretan parte hartu nahiko luketen, eta produktuak enpresa horri saltzeko gertu dauden galdetuko zaie baserritarrei. Mendi Nekazaritza elkartekeo proiektua nahiko aurreratuta dago, eta irailean argia ikusiko duela espero da.

Baserria gainbehera ote doa?

Mari Karmen Iturbe, Mendi Nekazaritza Elkartekeo teknikariaren berbetan, azkenaldian behera egin du baserriko produktuen salmentak. "Baserritar batzuk ez dute astirik izaten merkatuan produktuak salgai jartzeko, eta horregatik, auto kontsumorako ekoizten dute. Beste batzuetan, gutxi saltzen dutela-eta, azokara jeisteak ez duela merezi erabakitzen dute".

Teknikariaren ustez, irtenbide bat emanez gero baserritarrak gehiago animatuko lirateke. "Esaten badiegu produktuak enpresa bati saldu diezaieketela, beharbada gehiago lantzen hasiko dira".

Langile bat arduratuko da Deba Garaiko Mendi Nekazaritzaren inkesta egiteaz, inkestan agertzen diren galderak baserri-baserri ginez.



GRONDO

elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoa
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa

Tfnoak: 79 78 15 / 77 10 42 Faxe: 77 14 76

ARRASATE



*Bedoñako Otamendi baserriko **Aranatarrek** urteroko ohiturari eutsiz bazkaria egin zuten zapa-tuan. Mahai aurrean jarri baino lehen, meza izan zuten Bedoñako elizan. Errastiko jatetxean 27 Aranatar elkartu ziren. Arrasateko senitartekoez gain, Paşaia eta Donostia-koak ere etorri ziren. Ohitura polita senitartekoen lotura ez hausteko!*

Bilboko Makina-Erremintaren inaugurazioa Zarzuelatik propio etorri zen Juan Carlos I.a. Zintatxoak ebaki ondoren hainbat stand bisitatu zuen, horien artean Fagor Arrasatek jarritakoa, Hor duzue Ardanza Lehendakariarekin batera Fagor Arrasateko Jose Ignacio Etxebeste Komertzial burua eta Felix Emirez Komertzial zuzendariaren azalpenak entzuten.



Kalitate gorena leihuetan

LANTEGIA ETA ERAKUSKETA

Kataide poligonoa, 4. pabilioia. Tfnoa: 77 01 57 ARRASATE

Baster-alde

Jatetxea


Denboraldiko platerak, giro onenean

Galartza auzoa

ARETXABALETA

Tfnoa: (943) 79 24 58

Ederra benetan bi arrasatear hauek Landako urtegián harrapatutako arraina. Luzioak, luzioa da eta, 4 kilo t'erdiko pisua izan zuen eta zapatuan harrapatu zuten ordu dexeñte arrantzan igaro eta gero. Zapatu goizean harrapatu eta gauean lagun artean bapo bapo jan zuten Txalaparta elkarteñ.




IZEN PROPIOAK

● ARKOk batzar orokorra egin zuen asteartean eta zuzendaritza batzorde berria osatu zen. Jokin Mujikak, Xabier Etxeberriak eta Arantza Ozaetak utzi egin dute batzordea, euren ordeñ **Leire Maruri** eta **Jesus Larrañaga** sartu dira. Aipatutakoek gain, une honetan Zuzendaritza Batzordea lagun hauek osatzen dute: **Jose Jaime Bengoa, Iñaki Bordes, Juanjo Zabarte, Maite Bergaretxe** eta **Iñigo Andola**.

● **Mila Loidi** 37 urte, bergararra. San Andresko Berogailuetako Pertsonal Departamenduaren ardura-dun berria da. Mila Oñatiko Kooperatibetan erizain moduan hasi zen lanean. Azken 6 urteetan Altzairuetako Pertsonal burua izan da.

● **Ines Osinaga** 13 urteko soinuñolea eta Naiara Okina 13 urteko Panderoñolea Euskadi Irratiak antolatutako Trikiti Pieza Berrien Txapelketako finalera heldu dira paupturri sailean. Finala domekan izango da.



Herriko plazako iturria lekuz aldatzeko asmoa dago. Maritxu Kajoi egunean mirarien lekuko izan den iturriak Iturriotz kalean izan dezake kokagune berria. Orañdik non eta noiz jarri erabakita ez badago ere, herritarrak ohitu egin beharko dira ura edan edo eskuak garbitzeko herriko plazara joan ordeñ, Iturriotzera zuzentzeko.

DERMATOLOGIA • BENEREOLOGIA • MEDIKUNTZA • KIRURGIA

Cristina Garciandia Mugika

SAN MARTIN OSASUNDEGIA

Ramon M^a Lili, 2 GERAL. eskubia • BERGARA • Tfnoa: 76 59 39

NACION REIXA

+

Elkorobarrutia

GAUR Martxoak 22, ostirala

Gaueko 10etan
Amaia Antzokian
Sarrera: 500 pta.

gm
gaztemaniak



ARRASATEKO UDALA

Zaldibarko Futbito Txapelketa

- *Bigarren Faseko
4. ihardunaldia.*
- *Protagonistak:
Jon Unamuno eta Juan Carlos
Hernandez*

Konturatu barik aurrera doa Zaldibarko txapelketa. Neurketak gero eta interesgarriagoak eta lehiatsuagoak diren arren, epaileen eta jokalarien artean baretu egin da tentsioa eta onerako bidea hartu du lehen fasean izandako nahasteak. Espero dezagun lasaitasun horrek bukaera arte irautea. Bestalde, txapelketa aurrera doan neurrian talde faboritoak hasi dira euren tokiez jabetzen. Dagoeneko multzo bakoitzeko lehen postuetan talde onenak ditugu eta atzeko zuloan berriz makalenak.



HIES EKIMENA

Astelehen, astearte
eta ostiral
5etatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99

ARGI PLASTIC

- PVC eta Aluminioan egindako leihoak, ateak, manparak...
- Lantegitik zure etxera zuzenean

**Eska ezazu aurrekontua
konpromezu barik**



Tailerra eta Bulegoa: Zigarrola, 1-8 pabilioa • Tfnoa: 77 11 30 ARRASATE

beatriz

oinetakoak eta
poltsak

Erdiko kale, 11
Tfnoa: 79 14 33
ARRASATE

Sailkapenak

A taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT. Guzt.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
Argi Ibil	3	3	0	0	17	4	6
Perrahotsa	3	2	1	0	12	8	5
Okoretegi Tab.	3	2	1	0	12	10	5
Kamasutra	3	2	0	1	19	12	4
Hirei	3	1	1	1	8	7	3
A ti que te importa	3	0	1	2	8	10	1
Zotz Motz	3	0	0	3	10	22	0
Txeyenex	3	0	0	3	3	15	0

B taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT. Guzt.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
Sokoakoak	3	2	1	0	19	11	5
AC Surcos	3	2	1	0	12	7	5
Fosforos	3	2	1	0	19	12	5
Los Heredia	3	2	0	1	11	10	4
Cerv Leintz	3	1	1	1	11	11	3
Nuevo tab.	3	1	0	2	15	16	2
Orlando Piratas	3	0	0	3	9	14	0
Lautherbrunen	3	0	0	3	9	24	0

D taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT. Guzt.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
Adelaida Haizea	3	2	1	0	11	3	5
Pub people	3	1	2	0	9	8	4
MSM Ing Int	3	2	0	1	11	9	4
Insert Coin	3	2	0	1	11	12	4
Arrasate Kirolak	3	1	1	1	14	12	3
DKB	3	0	2	1	10	13	2
Arrogoi	3	0	1	2	11	13	1
Danok Lagun	3	0	1	2	6	11	1

E taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT. Guzt.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
Totem	3	2	1	0	14	9	5
Irati STS	3	2	1	0	12	10	5
Trikiti	3	2	0	1	13	7	4
Betrayer	3	2	0	1	16	14	4
Sortu Informatika	3	2	0	1	12	12	4
Aurrera Bolie	3	1	0	2	9	11	2
Artzankos Udalaiz	3	0	0	3	4	10	0
Anbotoste KT	3	0	0	3	6	16	0

Hurrengo partiduak

**Larunbata 23
Zaldibar**

8.50	Argi Ibil - Okoretegi Taberna
10.00	Totem - Artzankos Udalaiz
11.00	Txeyenex - Zotz motz
12.00	Orlando Piratas - Los heredia
13.00	Hirei - Kamasutra
14.00	Betrayer - Anbotoste
15.00	Nuevo tab - Lautherbrunen
16.00	Irati STS - Sortu informatika
17.00	Aurrera Bolie - Trikiti
18.00	Adelaida haizea - Arrasate Kirolak
19.00	Pub people - Insert coin

**Igandea 24
Zaldibar**

8.50	A ti que te importa - Perrahotsa
10.00	Fosforos - Sokoakoak
11.00	MSM Ing Int - DKB
12.00	Cerv leintz - AC surcos
13.00	Arrogoi Tab - Danok Lagun

● Golak nagusi

Golak barra barra hirugarren ihardunaldian. 137 gol sartu dira guztira. Multzo multzo gol gehien A multzoan sartu dituzte 39, Bn 35, D taldean 32 eta azken multzoan 31. Ihardunaldi honetan gol bakarra sartzeko gauza izan ez den taldea Txeyenex izan da. 0 eta 6 galdu zuen Argi Ibiliren kontra. Talde goleatzaileenak berriz, Sokoakoak eta Okoretegi taberna.

Emaitzak

A Taldea
A ti que te importa 2 - Hirei 2
Txeyenex 0 - Argi Ibil 6
Perrahotsa 7 - Kamasutra 6
Zotz Motz 7 - Okoretegi Taberna 9

B Taldea
Fosforos 6 - Nuevo taberna 5
Orlando Piratas 3 - Cerv. Leintz 4
Sokoakoak 9 - Lautherbrunen 3
Los heredia 1 - AC Surcos 4

D Taldea
Arrogoi Taberna 5 - MSM Ing. Int. 6
Pub People 2 - Adelaida Haizea 2
Danok Lagun 3 - DKB 3
Insert Coin 6 - Arrasate Kirolak 5

E Taldea
Aurrera Bolie 2 - Totem 6
Irati STS 6 - Betrayer 5
Trikiti 2 - Artzankos Udalaiz 1
Sortu Informatika 6 - Anbotoste 3

Hirugarren faseari begira hainbat talde ia aukera barik

Bigarren faseko hirugarren ihardunaldia jokatu denean gero eta garbiago ikusten dira hurrengo fasera sailkatzeko aukera duten taldeen izenak. Multzo bakoitzetik lau talde sailkatuko dira eta beste lauk agur esango diote txapelketari apirilaren 21ean. A multzoan ia aukera barik Txeyenex eta Zotz Motz daude. Ez dute punturik lortu eta ezta lortzeko itxurarik eman ere. Puntu bakarrak A ti que te importa dago. B multzoan Orlando Piratas eta Lautherbrunenek ez dute



partidurik irabazi. Nuevo taberna ere bigarren fase makala egiten ari da, bi puntu ditu eta azken hirugarrena da. D multzoan Arrogoi taberna eta Danok Lagunek ixten dute sailkapena puntu bakarrak. Beraz geratzen diren neurketa guztiak ez badituzte irabazten zaila dute. Azken multzoan Artzankos Udalaiz eta Anbotoste daude puntu barik 7. eta 8. postuetan. Aurrera Boliek 2 puntu ditu. Sailkatzeko jakina, gaur arte baino lan hobea egin beharko du. Neurketa guztiak talde bakarrak irabazi ditu, A multzoko Argi Ibilik.

Protagonista

Jon Unamuno
DKB


— Bigarren fasera hel-
tzea espero zenuten?

— Txapelketa hasi zene-
an ez genekien zer aurkituko
genuen beraz zalantzak bage-
nituen. Hasi zenean partidu
dexente irabazi genuen eta
bigarren faseaz hasi ginen
pentsatzen.

— Bigarrena beraz,
nola hasi duzue?

— Petral samar. Gaur arte
hiru neurketa jokatu ditugu bi
berdinu eta bat galdu. Bi pun-
turekin sailkapeneko 6. tokian
gaude. Gainera dagoeneko
jendea nekatuta dago eta gero
eta gehiago kostatzen zaigu
partidu osoak jokatzea

— Bigarren fasea gogo-
rra izaten da?



—Gogorra bai baina
behin helduz gero ahalegin
guztia egitea merezi du
hurrengo fasera joan ahal
izateko.

— Jendeak nola hartzen
du fase hori?

— Aurten oso serio dabil
jendea eta hori ikusteko edo-
zein partidutara joatea bai-

no ez dago. Jokalariok garai-
penaren bila zelairatzen gara,
ez dugu ez galdu ezta berdindu
nahi ere.

— Partiduak gogorra-
goak izaten dira?

— Batzuk bai beste batzuk
ez, denetik dago. Dena dela
jendeak urduri jokatzeko eta
askotan kontrola galtzeko
arriku gehiago dago.

— Danok lagunak kon-
trakoa nolako partidua izan
da?

— Parekatua bai lehen
zatian eta baita bigarrenean
ere. Markagailuan aurretik
jartzeko saiakerak egin ditu-
gu baina ahaleginak alperri-
kakoak izan dira eta azkene-
an hiruko berdinketarekin
konformatu behar.

— Faboritorik?

— Fosforos eta adalaida.

Labur

■ NEURKETA GOMENDAGARRIAK

**Zapatuan 9etan Argi
Ibili eta Los Heredia
izango dira lehian.
4etan Irati STS taldea-
ren aurkaria Sortu
Informatika izango da.
7etan beste bi talde
indarrak neurtzen Pub
People eta Insert Coin.
Domekan bi partidu
aipatu behar beste
guztien artean, 10etan
Fosforos eta Sokoako-
ak, talde sendoak biak
eta joku ona egiteko
gai direnak gaine-
ra; 12etan bi talde
tekniko izango dira nor
baino nor Cervecería
leintz eta AC Surcos.
Taldea biek egun ona
badute joku polita
erakus dezakete.**

Protagonista

J. Carlos Hernandez
A ti que te importa

— Azkenean bigarren
fasean ezta?

— Lehen zatian primeran
ibili ginen eta erraz pasa ginen
bigarren fasera baina itxura
denez fase horretan indar guz-
tiak erabili genituen eta orain
larri eta estu gabiltza. Ezin
partidurik irabazi, indar barik
eta jende gutxirekin. Pano-
rama horrekin ezin garaipe-
nik lortu.

— Zer egin duzue Hirei-
ren kontra?

— Bina berdindu. Egia
esateko neurketa gogorra izan
da baina bide batez esan behar
dut zortetik ere ez dugula izan.
Hireik ez du ondo jokatu bai-
na bi gol sartzeko gauza izan
denez eta guk gehiago ezin



izan dugunez sartu, hortxe
dago berdinketa.

— Hirugarren fasea
nola ikusten duzue?

— Une honetan oso urru-
ti. Gaur arte bi neurketa gal-
du ditugu, bakarria berdindu
eta puntu batekin sailkape-

neko 6. tokian gaude. Lau tal-
de sailkatu behar dira multzo
bakoitzetik eta dagoneko ihar-
dunaldi gutxi falta dira beraz
Zaldibarren gure etorkizuna
nahiko ilun dago.

— Entrenatzen duzue
asteaz zehar?

— Entrenatu ez. Nohizean
behin Eskoriatzan antolatzen
dituzten txapelketetan hartzen
dugu parte baina txapelketarako
zehazki entrenatu ez.

— Bigarren faseko
arauen gainean zer duzu
esateko?

— Ez dut ezer berezirik
esateko, nire ustez txapelke-
tak bere horretan jarraitzen du
eta arauak aldatu arren, ez dut
desberdintasunik aurkitzen.
Azken finean lehen fasekoen
antzerakoak dira.

— Talde sendoenak
zeintzuk dira zure ustez?

— Egia esateko Zaldibar
txapelketan parte hartzen
dudan lehen urtea da beraz ez
ditut ondo kontrolatzen gai-
nontzeko taldeak. Fosforos,
Adalaida, Argi ibili talde sen-
doak direla diote baina ez
dakit nola erantzungo duten
azkenean.

— Lehen urtea izanda
zer moduzko esperientzia-
bizi izaten ari zara?

— Ona, oso ona. Gusto-
ra nago jokatzeko eta taldeen
artein giro jatorra dagoela uste
dut nahiz eta jokatzeko orduan
guztion helburu nagusia ira-
baztea izan. Ez dakit hurren-
go fasera helduko garen bai-
na hala ere datorren urtean
berriro parte hartzeko gertu
nago.

Uribe Auzoa Txapelketa

A taldea

Hirei 6 - Egocentricos 4
Los Urracas 2 - Killer Barbies 3
Paste Papur 2 - Kamasutra P. 5
Zipote Nukleico 3 - Zutarri 7
Patxi eta Txapi 9 - Creature Feature 4

B taldea

Amo katxi 3 - Eight 7
Arrasate zoo 2 - Decima Victima 3
Ganba al Whisky 3 - Nuevo Tab 8
Pobres Rangers 13 - Manchester Fumaited 0
Rayo Batikano 4 - Ale Alee 11
Elisabeth 2 - Kamasutra 10

D taldea

Bortxitxak 13 - Mikel Lasa S. 3
Zigar. Mutilzaharrak 3 - Tandem 1
Borrock Roll P 3 - Diego Antonio 5
Cartonajes Igamo 3 - Gallinero 3
Betraye 4 - Power Rabgers 4
Zurt 1 - Jaleo Bila 2

E taldea

Piernodoiuna 2 - Blin 5
Nahiz eta Gure 5 - Borrock Roll 3
Beluga 12 - Racing de Molotov 2
High Society 1 - Koka Juniors 4
Balon Rojo 6 - Joseba Kont 5

■ Uribe auzoa txapelketan lehen fasea ari da jokatzeko. Fase horretan bost multzo daude 12 taldez osatuta. Horietatik multzo bakoitzeko hiru lehenek eta laugarren onenek hurrengo fasera sailkatzeko txartela lortuko dute. Jokatzeko ari den fasea maitzaren 25-26ko asteburuan bukatuko da.

URIBE AUZOA TXAPELKETAKO HURRENGO PARTIDUAK

Larunbata 16

Iturripe A

Hirei 6 - Egocentricos 4
Los Urracas 2 - Killer Barbies 3
Pasteleria papur 2 - Kamasutra P 5
Zipote Nukleico 3 - Zutarri 7
Patxi eta Txapi 9 - Creature Feature 4

B taldea

Amo-Katxi 3 - Eight 7
Arrasate zoo 2 - Decima Victima 3
Ganba al whisky 3 - Nuevo taberna 8
Pobres Rangers 13 - Manchester Fumaited 0
Rayo Batikano 4 - Ale alee 11
Elisabeth 2 - Kamasutra 10.

D taldea

Bortxitxak 13 - Mikel Lasa Aseg 3
Zig Mutilzaharrak 3 - Tandem 1
Borrock Roll P 3 - Diego Antonio 5
Cartonajes Igamo 3 - Gallinero 3
Betraye 4 - Power Rangers 4
Zurt 1 - Jaleo Bila 2

E taldea

Piernodoiuna 2 - Blind 5
Nahiz eta Gure 5 - Borrock Roll 3
Beluga 12 - Racing De Molotov 2
High Society 1 - Koka Juniors 4
Balon Rojo 6 - Joseba Kont 5

F taldea

Cheer Readers 9 - Leya 6
Potrosorri 8 - Lautherbrunnen 4
Munar Txiki 3 - Dribling 9
Interlaken 4 - L Tropikana 8
Uglys Txinato 24 - Arsenal DHD 0
Baneuko 2 - Malpikas 6

AEDko nesken futbito txapelketa

AEDko nesken futbito txapelketa zapatuan jarri zen abian. Lehen ihardunaldian 29 gol sartu dira eta atera begira Jo ta bertan gol izan da talde trebeena. Makalena berriz Saktale, gol bakarra sartu du eta. Bestalde Joi-

xon bertan taldeko Juli jokalaririk hanka bihurritu zuen eta datorren astean ezingo du jokatu. Datorren zapatuan goizeko 10etatik ordubata arte futbito izango da protagonista San Viator txikiko kantuan.

Lehen ihardunaldia

Abstine Subtine 4 - Jota akabau 2
Joixon Bertan 4 - Izenbakuak 5
Zeppaesstandon 3 - Saktale 1
Jo ta bertan gol 6 - Ekin gogor 4

Hurrengo partiduak

10.00 Saktale - Ekin Gogor
11.00 Abstine Subtine - Joixon Bertan
12.00 Jota Akabau - Izenbakuak
13.00 Zeppaesstandon - Jo ta bertan gol



Bilbo Makina- Erremintaren topaleku

Maider Egües

Martxoaren bigarren astean mundu osotik etorritako makina-erreminta sektoreko hainbat enpresek egin zuen topo Bilboko Nazioarteko Erakustazokan. Guztira eta 26.663 metro karratutan banatuta 1.256 enpresek puntako produktuak jarri zituzten erakusgai. Bilboko Nazioarteko Erakustazoka Makina-Erremintaren 19. Bienalaren lekuko izan berri da, mundu mailako feria garrantzitsuenetariko baten lekuko. Dena den, aurtengo edizioak ezaugarri pozgarri eta berezi bat izan zuen: duela bi urte ospatutakoaren aldean, %55ean handitu da parte hartu duten enpresen kopurua. Hau makina-erremintaren industri sektorearen errekuperazioaren islada da.

1 995ean makina-erreminta sektoreko fabrikatzaileek aurrera eraman zituzten inizatibaren emaitzak oso onak izan ziren, bai enpresen teknologiaren garapenaren aldetik eta baita mundu mailako merkatuko beharretara ondo egokitzen jakin izan zutelako ere.

Bilboko erakustazokako



Enpresariak, ikasleak, kuriosoak... era guztietako jendea hurbildu zen Bilbora makinak ikustera.

erakusle kopuru osoko %10aren jatorria atzerria izan da, gainontzekoena berriz, Estatu eta Euskal Herria, beraz, kanpoko enpresak erakustazokako azaleraren %7a baino ez zuten bete. Gainontzeko azalera estatuko eta Euskal Herriko enpresek bete zuten. Hala ere, estatuko aldean, hemengo enpresek Bienalaren izan duten presentziaren garrantzia azpimarratu egin behar da, estatuko Makina-erreminta sektore osoaren %70a Euskal Herrian dago kokatuta eta. Portzentai hori da, hain zuzen ere, Makina-erre-

mintaren estatuko feria bakarra Bilbon egitearen arrazoia.

ARRASATEKO ENPRESAK ERAKUSTAZOKAN

Zazpi pabilioitan banatuta tornioak, prentsak, mozgailuak, kontrol numerikoak, erregulatzaileak, zerrak... sektore honetan lan egiten ez duenarentzat burdinezko monstroak ziruditen makina-piloa zegoen Bilbon, eta makina guzti horien artean, Arrasateko enpresen stand-ak: Fagor Arrasate, Fagor Automotion, Ikerlan, Lineas Automáticas S. A. (LASA) eta Gamei. Inguru-

koak berriz, Danobat, Etxe-tar, Lealde eta beste hainbat.

Bienala zabaldu zenetik itxi zen arte, zazpi egun igaro zituzten enpresetako komertzialek, harreman publikoek, gerentek eta errepresentanteek bezero berriak erakarri, zaharrak atenditu eta bisitatu eta ikasleei azalpenak ematen. Jendeak hartu zitzaiz goxokiz beteta zegoen platera behin eta berriz betetzen egon behar izan zuen emakumeak ere, ez zuen lan makala izan. Txinatar, malasiar edo errusiar batek baino gehiagok Fagorreko goxokiak izango ditu oraindik

poltsikoan.

Fagor Arrasateko standean bost lagun ibili ziren lanean. Enpresatik ez zuten makinari eraman feriarra, argazki eta bideo bidezko informazioa baizik. Dena den, MCC taldeko Ona Pres eta Goiti enpresek hainbat prentsa mota jarri zituzten erakusgai.

“Lana ez da astuna baina bai nekeza. Dena den, etxean gaude eta enpresa askorekin harreman estua, lagun arteko daukagu” esaten zuten Arrasateko enpresariak. Erakustazoka isteko bi egun baino falta ez zirenean, zera esaten zuten Fagor Arrasateko komertzialak: “Bi hilabete baino ez daratmatzat Fagorren lanean eta lehenengoz etorri naiz bienalera. Oso gustora gaude orain arteko martxarekin, feria mailan negozio bat ixtea zaila bada ere, lehenengo kontaktuak egiteko eta bezeroekin harremanetan jartzeko oso baliagarria delako. Fagor Arrasatek behintzat egin ditu kontaktu interesgarri batzuk”. Makina-erreminta sektorearen osasun ona ere enpresarien aurpegi-tan ikusten zen, “gu oso ondo gabilta. Pentsa; Egin diegu eskaera guztiei erantzun! Gehiegi egiten dizkigute eta asko galdu egin ditugu ezin ditugulako epeak bete. Lan gehiegi daukagu” esaten zuten Fagor Arrasateko komertzialak.

Julen Busturia ere, Fagor Automotioeko gerentea pozik zegoen sektorearen egoerarekin: “1980tik hona beti etorri gara Bienalera eta aurtengoak itxura ona dauka, merkatua gure alde dago. Krisia igaro berri dugu, oso gaizki ibili gara, bai gu eta bai sektore osoa ere. 1993an lurra jo genuen; 94aren amaieran errekuperatzen hasi ginen eta 95a, argi eta garbi, irabazi urtea izan da. 96a ere irabazi urtea izaten ari da. 93an 140 langile ginen enpresan, 94an 180 eta 96an 220 izango gara; hau da, urteko 40 langile gehiago”.

Ikerlanekoak ere, nekatu-



Fagor Arrastek bideo eta argazki bidezko informazioa eraman zuten erakustazokara.

ta baina oso gustora zeuden feriarekin. Francisco Javier Ruiz de Munainek, Ikerlango Marketing Harremanetarako arduradunak esan zuenez, “aurreko bienalean baino askoz bisitari gehiago eta erakusle bikoitza izan dira azkenengo honetan. Gainera, bisitariak beste asmo batekin etorri dira, inbertitzeko asmoarekin alegia. Gure ondoan dauden enpresei galdetzen diegunean, urte honetako guztia eta hurrengo-koaren erdia salduta dutela esaten digute”.

Arrasateko Gamei enpresakoek ere balorazio ona egin dute ferieren gainean: “Oraindik goiz da balorazio orokor bat egiteko baina gustora geratu gara Bilbon egin ditugun kontaktuarekin. Betidanik hartu dugu parte ferian eta aurtengoan mugimendu asko egon dela nabaritu dugu. Egin ditugun kontaktu gehienak, estatuko, Portugalgo eta Frantziako enpresek izan dira”.


Elgoibarko Danobat tal-

“Feriako lana ez da astuna, baina bai nekeza. Dena den etxean gaude eta enpresa askorekin harreman estua, lagun artekoa daukagu”

• • •

“1980tik hona beti etorri gara Bienalera eta aurtengoak itxura ona dauka, merkatua gure alde dago”

deko Jose Manuel Seguesek ferieren bidez negozio espektatibak egin zituztela aipatzen zuten eta Bilboko bienalaren garrantzia azpimarratzen zuten: “Bi urtean behin egiten da feria hau eta parte hartu beharra dago, estatuko bakarra da eta. Gainera, kanpotar asko etortzen da eta gune egokia da elkar ezagutzeko”. Makina-erremintaren egoera Danobat taldean ona zela esan zuten ere, Elgoibarko taldeak pasa den krisia ere igarri du eta. Euskal Herriko makina-erreminta sektoreko produktuek kanpokoen inbidiarik ez dutela zion Jose Manuelek: “Europa mailan gure produktuak lehenengo postuetan daude. Automobiletako klienteek gutxiago ezagutzen gaituzte baina gero eta gehiago hurbiltzen ari gaitzaizkie. Izan ere, eurek esaten digutenez, alemaniarrak eta gu maila berean gaude. Espainia, makina-erreminta sektorean lehenetarikoa da eta estatuko enpresen %80a Eus-



1.256 enpresek hartu zuten parte Bilboko Makina-Erreminta Bienalean.

kal Herrian dagoenez, pisu handia daukagu”.

ALEMANIARRAK ETA JAPONIARRAK, KONPETENTZIA

“Euskal Herriko makina-erreminta sektoreko enpresen kompetentziari dagokionez, Alemaniak eta Japoniak betiko monstro handiak izaten jarraitzen dute” zioen Fagor Automotoneko Julen Busturiak. Bi potentzia hauen mailara iristeko irudia falta zaie-la esaten du, “Euskal Herrian ordez, Stuttgarten lan egingo bagenu, gehiago salduko genuke, Piriniotatik bera bizi diren biztanleak europarrak baino marokorrek direla esaten du jendeak, beraz, irudi kontua da.” Jose Mari Larrañagak, Fagor Automotoneko Asia Pazifikoko arduradunak zera gehitzen du: “Gure enpresa alemaniarrena eta japoniarrena baino txikiagoa da tamainaz eta gu baino esperientzia gehiago daukate. Bestalde, jende eta

“Guri irudia falta zaigu. Euskal Herrian ordez Stuttgarten lan egingo bagenu, gehiago salduko genuke, Piriniotatik bera bizi diren biztanleak europarrak baino marokorrek direla esaten du jendeak. Beraz, irudi kontua da”

inbertsio handiagoak egiten dituzte. Dena den, guk badugu abantaila bat: enpresa txikiagoa garenez, mugikortasun handiagoa daukagu eta hori aprobetxatzen dugu, bai entregak egiterako orduan eta baita prezioak adosterakoan ere”.

LANGILEEN PRESTAKUNTZA

Fagor Automotoneko Julen Busturiak ez du bere enpresako langileekiko kezkarik: “Gure langileak enpresan daukagun gauzarik onena dira. Gure aktibitateak bi gauza garrantzitsu ditu: gure garpenerako ahalmena, hau da, ikerketa alorrean dabilen langilegoa eta kanpoan sareak edukitzearen ahalmena. Munduan zehar 12 bulego dauzkagu zabalik, beraz, hemen 220 langile gara eta kanpoan 80. Langilegoaren prestakuntza oso garrantzitsua da eta geureekin pozik gaude”.


Danobateko Seguesek ere oso ondo prestatutako langi-

leak dituztela aipatzen zuen. Hala ere, esportazio asko egiten ari direnez, hizkuntza aldetik euren langilegoa birziklatzen ari dela esan zuen: “Egunero ari gatzazkie langileei hizkuntza berriak erakusten. Lehen Espainia mailan bakarrik egiten genuen lan baina orain gehiena kanpoan saltzen dugu, Txina, Ingalaterra, Frantzia, Alemania, Brasil, Argentina... beraz, derrigorrezkoa da gure langileek hizkuntzak menperatzea, ez bakarrik saltzen duenak, baita makina jartzera doanak ere”.

HURRENGO KRISIRAKO PRESTATZEN

“Makina-erreminta sektorean krisia egoten da 3-4 urtean behin eta datorrenerako prestatu beharra daukagu. Krisitik atera berriak gaude eta bi urte iraungo dugu merkatuan. Orain itxaroten ari garela esan daiteke, hauteskunde orokorrek pasatu berri ditugu eta” azaltzen du Danobateko enpresariak. “Krisietan asko ikasten da eta hurrengoan nola jokatu behar duzun ikusten da” dio Seguesek. Krisietarako nola prestatzen diren galdetzerakoan “Krisia ez dagoen garaian salmenta puntuak gehitzen ditugu. Orain adibidez, Brasilen edo Indian saltzeko espektatibak ditugu, beraz, komertzialak jartzen ditugu han. Hemengo merkatua jeisten denean edo krisia etortzen denean, hemengo jendea gutxitu eta merkatua hemendik kanpo garatzen dugu” erantzuten du.

Joan den domekan itxi zen Makina-Erremintaren 19. Bienala. Komunikabideek aipatu dutenez, feria arrakastatsua izan da. Arrasateko enpresek berriak, ez dute komunikabideetako berriak entzun beharrik izan arrakasta hori baieztatzeko. Ferian negozio harreman berriak lortu dituzte eta etorkizunari begira, itxaropentsu daude. Makina-erreminta sektorea, momentuz, egoera onean dago.



Golf-ean jokatzen ikasteko aukera izango dute maiatzatik aurrera arrasatearrak.

Tenis, golf eta igeriketa ikastaroak abian

Deba garaiko Mankomunitateko kirol zerbitzuek hiru ikastaro jarriko dituzte abian maiatzerako. Igeriketa monitorea, tenis instruktorea eta golf hasiera eta hobekuntza ikastaroetan parte hartzeko aukera egongo da. Igeriketa monitorea ikastaroa 18 urtetik gorakoentzat dago antolatuta. Klaseak Oñatiko Zubikoa kiroldegian emango dira apirilaren 13, 20, 27 eta maiatzaren 4 eta 11an, ordutegia goizeko 8etatik 2ak arte. Prezioari dagokionez 32.000 pta. Deba bailarako edozein kirol zerbitzuetako bazkideentzat eta

36.000 pta. gainontzekoentzat. Tenis ikastaroan 16 urtetik gorakoek har dezakete parte. Ikastaro hori ere Oñatiko Zubikoa kiroldegian emango da maiatzaren 3, 4 eta 5ean, ostiralez arratsaldean, larunbat eta igandean berriz, goiz eta arratsaldez. Derrigorrezkoa da federazioko lizentzia izatea. Ordaindu beharrekoa 27.000 pta. bazkideentzat eta 32.000 pta. ez direnentzat. Golf ikastaroa bi mailatan banatu dute. Hasierako ikastaroa 16 urtetik gorakoentzat. Klaseak Musakolako kiroldegian eta Lagranen emango dira

maiatzaren 11, 18, 25 eta ekainaren 1 eta 2an. Prezioa 10.000 pta. bazkideentzat eta 12.500 pta. gainontzekoentzat. Hobekuntza ikastaroa maiatzaren 25, 26 eta ekainaren 8 eta 9an emango da Arabako Lagranen. Prezioa 10.000 pta. eta 12.500 pta. bazkide ez direnentzat. Informazio gehiagorako Musakolako kiroldegira zuzendu edota 79 04 27 zenbakira deitu. Ikastaro bakoitzean ikasle kopuru mugatuak parte hartu ahal izango du, beraz lehenbailehen izena ematea gomendatzen da.

LABURRAK

Deba Arroa txapelketa

Deba Arroa txapelketako neurketak jokatuko dituzte Arrasate eta Oñatiko pilotariek zapatuan goizeko 11etatik aurrera Iturripen. Infantiletan Aitzol Lazkano eta Dabid Belategi arituko dira, jubenetan Gorka Etxebarria eta Oskar Rubia, eta nagusietan Iker Zugasti eta Unai Uribarren. Arratsaldeko 4.30etan berriz, Elgetako Oskarbi txapelketan hartuko dute parte benjamin, alebin eta infantil mailako pilotariek. Domekan gainera, bigarren mailako eskuz binakako San Juan txapelketa egongo da jokuan Iturripen goizeko 10etatik aurrera. Aurrez aurre, Dominguez anaiak Lazkano, Uribarrenen kontra. Zubillaga-Belategi bikotearen aurkariak Jauregi-Nafarrate izango dira eta azken partiduan batetik Ormaetxea-Arostegi eta bestetik Alzelai-Etxeandia arituko dira.

Cesar Diez Valladolideko txapelketan

Cesar Diez arrasatearrak Valladolideko beterano mailako txapelketan hartu zuen parte joan zen domekan. Bertan 67 korrikalari aritu ziren eta Cesar Diez Arrasate atletiko taldeko korrikalaria 29. tokian sailkatu zen bigarren gipuzkoarra izanik. Bere denbora 29' eta 32''.



PARDO estetika zentrua

ARGIZARIZKO DEPILAZIOA

10 saioetatik orain 1 dohan

Iparragirre Enparantza, 4 Behea. Grupo San Juan

Eskaintza bereziak!


*SOLARIUMA DUTXAREKIN

Lehen

10 saio
+
1 dohainik
~~14.000 pta.~~

Orain

10 saio
+
1 dohainik
8.000 pta.



*Apirilaren 30era arte baliagarria.

Ereintza eskubaloikoen aurkaria

Eskubaloi taldeak lehen faseko azken aurreko neurketa jokatu du domekan Ereintza taldearen kontra. Herreroren mutilek garaipen garrantzitsua lortu zuten Salamancako Bejarren aurrean Iturripen. Beraz, indar berri-tuta eta irabazteko irrikan egingo diote aurre domeka-n norgehiagokari. Ereintzak 20 puntu ditu eta sailkapene-ko 6. tokian dago. Talde sendoa izan arren Iturripen talde biek elkarren kontra indarrak neurtu zituztenean berdinketa nagusitu zen. Une honetan Arrasateko taldea bolada onean dago eta kanpoan etxean baino hobeto jokatzen duela kontuan hartuta, pentsa daiteke neurketa hori aurrera ateratzeko gauza izango direla. Partidua eguerdiko 12etan jokatu da Errenderiko Kiroldegian.

Urbina Maltzaga Galiziara

Urbina Maltzaga eta Clesa Ferrolen arteko neurketa



Eskubaloi taldeak beste garaipen bat lor dezake Errenderian.

egongo da ikusgai Ferroleko kiroldegian zapatuan arratsaldeko 7etan. Arrasateko taldeak jarraian 8 garaipen lortu ditu eta faborito gisa kantxaratuko da. Clesa Ferrolekoek berriz, ez diete gauzak samur jarriko Samaniegoren taldeari. Galiziarrek sailka-

peneko 10. tokian daude 42 punturekin eta igoerako play offa jokatzeke irabazi egin behar dute nahi eta nahiez. Urbina Maltzaga talde osoarekin joango da Galiziara, Carlus Groves amerikarra ere hasierako boskotean izango da. Lehen bueltan Clesak 75

eta 63 irabazi zuen Iturripen. Gaur egungo Urbina Maltzaga dena dela, ez da hasierakoa. Samaniegok talde sendo eta lehiakorra osatzea lortu du eta gaur egun EBA ligako talde onenetarikoa dela esan daiteke. Horren erakusgarri erakusten ari den jokua.

Basconia bisitari Atxabalpen

Hirugarren mailako Mondrak Basconia taldearen bisita jasoko du domekan arratsaldeko 4.30etan Atxabalpen. Denboraldiko 30. ihardunaldia egongo da jokuan eta Mondrak dagoeneko jakina den moduan garaipena behar du derri-gorrez. Aurkaria bestalde ez da nolana hiko taldea, sailkapeneko 6. tokian dago 44 punturekin eta ez du

amore ematen zelairatzen denean. Basconiak eta Mondrak elkarren kontra jokatu zutenean banako berdinketaz bukatu zen partidua. Domekan emaitza horri buelta emateko Zivojevicen mutilak aukerak sortzeaz gain, baloia sare barruan uzten ahalegindu beharko dira bestela jokalarien saiakera guztiak alperrikakoak izan daitezke

golik sartu ez eta aurkariari sartzeko aukera ematen badiote.

Denboraldia bukatze-ko beste bederatzi neurketa falta zaizkio Mondrari. Horietatik 7 irabazi behar-ko litzuzke 3. mailari eus-teko. Aurkariak talde hauek izango dira: Zamudio, Urola, Elgoibar, Juventus, EHU, Zalla, Zorroza eta Getxo.

LABURRAK

Karatea

Iñaki Muñoz Espainiako Karate txapelketan parte hartzeke joango da zapatuan Madrila. Saioa gimnasia taldeko kareteka Gipuzkoako ordezkari bakarra izango da txapelketan. Euskal Herri-tik 16 kirolari joango dira eta Gipuzkoatik Iñaki Muñoz arrasatearra. 28 urteko gazte honek kumitean eta katan hartuko du parte. Iñaki Saioa gimnasioko karateko irakaslea da eta bere kurrikuluma luzea bezain ona dela esan daiteke. Txapelketari begira baikor dago nahiz eta lehen postuak lortzea zaila izango dela aitortu.

Unai Torres

TV3 telebista kataluniarrean aktore lanetan

ATBn ezaguna izateaz gain, inguruko eta Madrilgo antzokiak ere zapaldu ditu Arrasateko aktore gazte honek Agerre antzerki taldearekin. Iaz dramatizazio diplomatura atera zuen eta informatika ikasten ari den arren, nahiago du irudizko pertsonaien paperetan murgiltzea. Orain berriz, telebista kataluniarrean telesail bat grabatzen egon da.

— Zer da egin berri duzun lan hori?

— Bartzelonan egon naiz TV3 telebista kataluniarrendako telesail bat grabatzen. “¡Oh, España!” du izena eta TVE erostekotan dago.

— Zein da zure papera?


— Telesaileko protagonistak bidaia egiten ari dira Nafarroan zehar. Ni berriz, autostopa egiten dagoen gazte euskaldun bat naiz eta eurekin egiten dut topo. Protagonistak hotel baten bila dabilta eta nik nire etxera eramaten ditut, baserri batera. Baserrian nire aitarekin bizi naiz.

— Telebistan egin duzu bestelako lanik?

— Pausoka produktorak Euskal Telebistarako egiten duen “64” telesailean hartu nuen parte kapitulu batean. Azaroan grabatu genuen eta duela bi aste aireratu zen.

— Eta zer moduzko esperientzia da telekomedia batean lan egitea?

— Nire esperientziaren arabera, gauza guztiak oso azkar egiten dira. “64” telesailerako behin bakarrik entsaiatu genuen eta zuzenda-



riak zerbait zuzendu eta gero, zuzenean grabatzera joan ginen. Beste produkzio honetan berriz, egun oso bat izan dugu entsaiatzeko eta hiru grabatzeko. Askoz lasaiagoa izan da.

— Beraz, telebistan antzerkian baino gutxiago entsaiatzen da?

— Antzerki obra baterako gutxi gorabehera hiru hilabete pasatzen dira entsaiotan eta telebistan ez da horretarako denborarik egoten.

— Lan berri hau erronka bat izan da zuretzat?

— Edozein lan da erronka bat. Kapitulu batean bai-

no ez dut parte hartuko baina niretako telesail osoan parte hartuko banu bezala izan da.

— Dena dela, nahiago duzu antzerkia, ez?

— Bai. Antzerkian ikuslearekin sortzen den harremana oso berezia da. Konplizitate magiko bat sortzen da aktoreen eta ikusleen artean, gauza guztiak ikusleen parean eta momentuan gertatzen direlako. Beraiek dira epaile eta lekuko.

— Gaztea zara eta gauza asko egin duzu jadanik. Pozik egongo zara, ez?

— Bai. Izugarritzko zor-

tea izan nuen Maite Agirren konpainian sartzean. Maite, Agerre antzerki konpainiako zuzendaria izateaz gain, nire irakaslea zen eta bere konpainian sartzeko aukera eman zidan. Jende askok urte pila pasatzen du eskolan lehen aukeraren zain eta nik zortea izan nuen. Egunero klasera joatetik Victoria Eugenia antzeztara pasatu nintzen eta gero Madril joan ginen. Argi dago eszenatoki batean klasean baino askoz gehiago ikasten dela. Orain TV3ekoa atera zait, beraz, ez daukat kexatzeko arrazoirik.

— Antzerki munduari dagokionez, baduzu ametsik?

— Nire ametsa antzerkitik bizi ahal izatea da.

— Zaila da aktorearen lana?

— Ez da erraza. Testu bat ikasi eta barre egin behar denean barre egitea eta negar egin behar denean negar egitea baino konplikatua da. Aktorearen helburua bakarra da: gezurra den hori sinistea eta sinistaraztea. Ez da kanpotik ikusten dena imitatzea, kanpoan gertatu den hori zerk sortarazi duen bilatzea baizik.

— Nola ikusten duzu antzerkia Arrasaten?

— Zoritxarrez jende gutxi joaten da antzerkira. Jende asko ez da sekula joan eta joan beharko litzateke Gainera, Udalak erraztasun guztiak jartzen ditu. Donostian adibidez, bikoitza ordaindu behar da antzerki obra bera ikusteagatik. Bestalde, herri-ekartzen diren obrak, nahiz eta gutxi izan, kontu handiz aukeratutakoak dira.

“Aktorearen helburua bakarra da: gezurra den hori sinistea eta publikoari sinistaraztea”

Arrasateko Gaztetxea

Kontzertuak bai baina entzulerik ez

Gaztetxeen antolamenduari buruz eta eskaini behariko lituzketen zerbitzuei buruz asko eta asko hitzegin da. Arrasatekoak 5 urte beteko ditu aurki, Aste Santutan hain zuzen eta eman du zer esanik denbora luze honetan. Atzean geratu zen gaztetxearen lehen okupazioaren istorioa, baita kontzertuen ordu-tegien polemika ere, baina oraindik ere Arrasateko gaztetxera nor joaten den eta antolatzen diren gauzak noren erabakiz antolatzen diren zalantzan jartzen da.

Askok gaztetxera jende talde konkretu bat joaten dela esaten dute eta horregatik, gaztetxea, gazteen etxea izan arren, ez dira bertara hurbiltzen. Kontuak kontu, Arrasateko gaztetxeak antolatzen dituen ikastaroek eta kontzertuek helburu bat dute: gazte guztiei dibertsiorako beste aukera bat ematea eta elkartzeko toki bat eskaintzea.

Iker Barandiaranek, gaztetxeko partaideak esaten duenez, "egia da jende talde konkretu bat baino ez dela gaztetxera joaten baina hori horrela izan ez dadin ahalegintzen gara. Kontzertu asko antolatzen dugu eta horrela, gaztetxera hurbiltzeko aukera ematen diegu gazteei. Kontua da talde ezezagunak ekartzan ditugula, beraz, jendeak paso egiten du. Gure gustoko taldeak ekartzeko erruan erortzen gara, baina gusto desberdineko jende berria hurbiltzen ez bada hori ezin da aldatu".

Kontzertuei dagokionez



Psilicon Flesh talde madrildarra kontzertua emango du Gaztetxean.

behintzat, nahiz eta ezezagunak izan, gaztetxeak ez du musika taldeen faltarik izaten. "Oso gutxitan deitzen diegu taldeei jotzera etor daitezten. Normalean eurek deitzen digute gaztetxean jo nahi dutela esanez. Beraz, musika talde faltarik ez dugu" dio Iker Barandiaranek, beste lagun batzuekin batera, kontzertuak antolatzeko ardura hartzen duenak. Gainera, Arrasate geografikoki ondo kokatua egotea abantaila dela dio Ikerrek, gaztetxearen handitasuna bezala. Talde ospetsuak datozenean, jende asko sartzen da. Baina tamaina hori ere batzutan arazo bihurtzen da: "Kontzertu askotan handi geratzen zaigu gaztetxea eta taldeei hotzegia iruditzen zaie horren leku handian eta hain entzule gutxirekin kontzertu

bat ematea. Hori dela eta, gaztetxea bi zatitan banatzea ere pentsatu dugu. Dena den, ez gara ausartzen, ekainean gaztetxea itxi egingo dela entzun dugu eta".

Gezurra badirudi ere, Arrasateko taldeak dira gaztetxean gutxien jotzen dutenak. Iker Barandiaranek azaltzen duenez, ez dira ausartzen herri-tarren aurrean jotzen. Euskal Herriko eta Estatuko taldeei dagokienez berriz, 70 talde ei daude Arrasateko gaztetxean jotzeko zain.


Bost urte hauetan zehar, makina bat talde pasatu da gaztetxetik, hori dela eta, harreman estua lortu dute askorekin. Ikerrek azaltzen duenez, "lehen "Underground talde asko etortzen zen Euskal Herrira eta horregatik, euren lagun handiak bihurtu ginen.

Berlingo taldeekin harreman handia daukagu, Chilly Con-feti, Die Tester eta Hirn taldeekin hain zuzen. Europan bira egiten dutenean beti etortzen dira Arrasatera. Talde hauek gaztetxeetan eta antzeko tokietan jotzeko joera dute".

Jotzera etortzen diren taldeek takilatik ateratako dirua eramaten dute, gaztetxeak berriz barratik ateratakoa. Dena den, taldeek ez badute euren soinu ekipoa ekartzan eta gaztetxeak jarri behar izaten badu, diru kopuru hori kentzen zaie taldeei soinua ordaindu ahal izateko.

Zaratari dagokionez, inguruko bizilagunekin ia arazorik ez dutela esaten du Ikerrek. Kontzertuak 12.30etarako amaituta egoteaz arduratzen dira eta horrela ez da kexurik egoten.

TeleAzoka



Apirilaren 18tik aurrera
zure iragarkiak **merke-merke**
teletestuan.

Astero astero iragarki berriak!

 **TB**
ARRASATE

Informazioa: **77 08 15**

● *Garbiñe Agirre*

“Anorexia gaisotasun serioa da”

Anorexia eta Bulimia aspaldiko gaisotasunak direla uste da. Azkenaldian hala ere, ugaritu egin da gaisotasun horiek dituztenen kopurua, eta horregatik, hizpide bihurtu dira.

Gaisotasun serio horiei aurre egiteko, orain dela bi urte ACA-BE elkarteak eratu zen Gipuzkoan, nerbio-anorexia eta bulimien kontrako elkarteak.

- Zer dela eta sortu zen Acabe elkarteak?

- Orain dela bi urte ETB-ko saio batean familian arazoa bizi genuen hainbat lagun bildu ginen. Saioari esker elkar ezagutu, eta elkarteak sortzea erabaki genuen. Handik aurrera erakunde bihurtzeko pausuak ematen eta laguntza eskatzen aritu ginen, eta 94ko irailean elkarte bezala lanean hasi. Lana hobeto egiteko, gainera, Acabe Gipuzkoa eta Acabe Bizkaia eratu genituen, baina bi elkarten arteko harremana oso estua da.

- Zenbat partaide zarete?

- Guztira 60 gara bazkide kuota ordaintzen dugun familiak. Horrez gain, 100 lagunen fitxak ditugu eta 140 tele-

fono dei jaso ditugu.

Familian nerbio-anorexia edo bulimia kasuren bat izan dugunok edo dugunok osatzen dugu elkarteak. Gure helburua gaiso daudenei laguntzea da, baina familia batek beste bati eman diezaiokkeen laguntza ere oso garrantzitsua da. Senitartekoak lur jota egoten dira, eta arazoa bizi izan duten beste batzuk asko lagun diezaiokete. Bestalde, gaisotasuna bizi izan dutenen parte hartzea ere ezinbestekoa da, momentuan gaisotasuna dutenei laguntzeko eta tratamendu bat jarraitu behar dutela erakusteko. Horretarako guztirako auto laguntzarako taldeak eratzen ditugu; bai familiar-tekoendako eta baita gaisoendako ere. Gainera psikologo, psikiatra eta beste profesional batzuk ere ematen ditugute laguntza. Elkartearen telefono zenbakia honako hau da: 31 24 47.

- Askok kostatzen da anorexia eta bulimia sendatzea?

- Hiru edo bost urte. Denbora luzea behar izaten da eta batzutan familiaren egoera txartu egiten da, egunero-egunero egin behar da borroka eta.

- Zer esaten diezue laguntza eskatzera joaten direnei?



- Hasieran komeni da Osakidetzara joatea, benetan gaisotasuna duten jakiteko. Gaisotasuna dutela ziurra bada, dauden aukeren berri ematen diegu. Garrantzitsuena lehenbailehen zerbait egiten hastea da, zeren aurrera irteteko laguntza handia behar izaten dute gaisoek. Sendatzerako orduan, gainera, ez da berdina urtebeteko anorexia edo urte askotakoa. Zezenari adarretatik heldu behar zaio, laguntza guztiak ez dira nahikoa izango eta. Oker dabilta adin kontuak direla, eta epe hori igarotzean pasako zaiela uste duten gurasoek. Anorexia eta bulimia gaisotasun serioak dira.

- Elkartearen zaudenez, zuk zeuk ere familian arazoa bizi izango zenuen.


- Ezin dizut hori esan.

Elkartearen dugun printzipio baten arabera, inork ezin du bere kasuaren berri eman. Familia batek erabaki dezake beste bati arazoa kontatzea, baina etikoki ez dugu ondo ikusten norberak bere kasua kontatzea.

- Argal egotearen modak irauten duen bitartean, gaisotasun horiek ere jarraituko dute?

- Teoria batzuek esaten dutenez gaisotasuna hartzeko alde aurretiko joera egoten da, giroak ere eragiten du eta familiako arazoek ere eragin dezakete. Beraz, arrazoi ugari egon daiteke anorexia edo bulimiaren barruan. Egia da hala ere, modak asko eragiten duela. Komunikabideek, batez ere garai honetan, argaltzeko mezuak jaurtitzen dizkigute etengabe, eta horrek ez du laguntzen.

● **“Oker dabilta adin kontuak direla eta epe hori igarotzean pasako zaiela uste duten gurasoek. Garrantzitsuena lehenbailehen zerbait egiten hastea da”**



H

ogeitamazortzi urte bete ditu aurten Makina-Erremintaren Bilboko Nazioarteko Feriak bere XIX. edizioan. Argazki biak Feria horretan ateratakoak dira. Baten **Manolo Quevedo** Ikerlango gerente-ohia agertzen da, stand aurrean, **Garlos Garaikoetxea** orduko Lehendakaria eta Jaurlaritzako beste partaide batzurekin. Leizaola ere agertzen da atzealdean. Ondoan, **F. J. Ruiz de Munain**, Ikerlango ordezkaria eta stand barruan urte hartan hain famatua izan zen ploter-ra.


Goiko argazkian Fagor Arrasatek 1968. urtean Bilboko topaketan jarritako stand-a agertzen da. Argazkiak argi adierazten du hura beste garai bat zela, ez zuen eta orduko feriak gaur egun duen dotoretasunik.



Z E R N A H I A G O ?

Rafa Godoy**“Biribil” edaridendakoa**

- Zenbat edari marka daukazu? 500en bat.
- Arrasatearrek zer erosten dute gehien? Ardoa.
- Zuk zer edaten duzu? Ura.
- Mozkor ona harrapatu daiteke hemen dagoenarekin, ez? Bai, mozkor bat baino gehiago.
- Edaten duzu konbinaturik? Ez, ez zaizkit gustatzen. Ardoa edaten dut, edo bestela garagardoa.
- Zein egunetan izaten duzu bezero gehien? Ostiraletan.
- Lapurtu dizute? Dirua ez baina edariak bat.
- Udaberrian alergiarik izaten duzu? Ez.
- Zerk ematen dizu lotsa? Emakumeek.
- Mokasinak ala botak? Neguan botak eta udaran mokasinak.
- Lepo luzeko jertseak ala normalak? Normalak.
- Pizzeriak ala txinoak? Pizzeriak.
- Baba zuriak ala gorriak? Biak.
- Izenez aldatuko zenuke? Ez, gustora nago nirearekin.
- Bete gabeko amets bat? Lan gutxiago egitea.
- Telebista saio bat? ETBko “III Milenio”
- Kirolik egiten duzu? Ez.
- Bakero marka bat? Edozein.
- Aurten joan zara sagardotegiren batera? Oraindik ez, baina badut joateko asmoa.
- Zein sagardotegira joango zara? Ikaztegietao bakarrera, Begiristainera.
- Sinestuna zara? Bai.
- Abiadura gustatzen zaizu? Bai, dagoeneko izan ditut istripu batzuk.
- Zein kolorekoa ikusten duzu bizitza? Gorria.



MUSIKA

Arrasate Kantari bertan behera

AEDk eta herriko beste hainbat taldek martxoaren 23rako prestatuta zuten Arrasate Kantari kantu jaialdia bertan behera geratu da antolatzailleen erabakiz. Izena bost taldek baino eman ez dutelako erabaki dute antolatzailleek jaialdia ez egitea eta talde gutxiarekin jaialdia motz geratuko litzatekeela aipatu dute.

Esther Apaolazak, AEDko kideak eta jaialdiaren bultzatzaileetarikoa batek aipatu duenez, “Euskal kantagintza sustatzea da gure helburua eta beste bide batzuk bilatuko ditugu helburu hori lortzeko. Iazko jaialdia, egia esan, arrakastatsua izan zen baina aurtan ez dugu zorterik izan”.

Helburu hori lortzeko, jadanik aurkitu dute beste bide bat. Apirilaren 20rako kantu afaria antolatu dute.

Esther Apaolazak esan duenez, “desilusio handia izan da horrenbeste gogoz antolatutako jaialdia ezin burutu ahal izatea partaidetza kopuru txikiagatik. Gainera, izena emanda zuten bost taldeek ere pena handia hartu dute”.

**Parques
y Jardines**

**Parke eta lorategien
sorkuntza.**

**Lorazaintzako
mantenimendua orohar.**


**Landare-birsorkuntza
hidroereintzaz.**




Casa-Torre kalea. Tfnoa: (94) 681 90 82 ABADIÑO (Bizkaia)

“Edateko bost arrazoi daude: lagun baten etorrera, momentuko eta geroko egarria, ardoaren zaporea, eta gainera beste edozein arrazoi.”

SIRMOND



Eztabaidatu ondoren... batera iritsi ginen



J. B. AGORRIA

Horizontalak 1. Garrantzi berezia duen eliza. 9. Ahalegin. 10. Zaldien antzeko Afrikako bobidoa. 11. Iratze, garo. 12. Arditxakur. 15. Herrialde hinduetan, erregina. 16. Zilarra. 17. Jostorratza bultzatzeko tresna. 20. Egoki. 21. Labain, irristakor.

Bertikalak 1. Kortabarria, ATBko eguraldi gizona. 2. Arabako udalerrria. 3. Musika-escalako 7. nota. 4. Izen baten hasierako letra. 5. (Ald.) Asiako laku gazia. 6. (Ald.) Gogo, desira, gura. 7. Alfabetoko 11. letraren izena. 8. Senarra hil zaion pertsona. 13. Leherkari ezaguna. 14. Joan aditzaren erroa. 18. Eguzkiaren jainko egip-toarra. 19. Euskal Batasuna.

Aries Jokoan ona denak badakizu amodioan zer duen, ezta?

Taurus Hori da kolorea aurpegian duzuna. Osasuna ez zaizu falta.

Gemini Ilea barra-barra eroriko zaitzu txanpua aldatzen ez baduzu.

Cançer Astebukaeraren zain izaten zara baina astean ere badago zer eginik.

Leo Zer egin ez dakizula? Txaloak jo eta dantza egin!

Virgo Triste jartzen zarenean gauzak txarrera joaten dira.

Libra Amodio aholkuei buruzko ikas-taroa eman beharko zenuke.

Scorpio Zelako nahasmena duzun! Arazoez inguratuta bizi zara.

Sagitaris Pena ematen du gure heroiak zeintzuk diren jakiteak.

Capricorn Berbetan hasten zarenean izugarritzko audientzia lortzen duzu.

Aquarius Izarrei begira gaur ere? Gaur ez dute ezer esaten ba.

Piscis Gauero biblia irakurtzeak on egin diezazuke.

GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA

- Minbiziaren diagnostiko goiztiarra
- Ekografia
- Mamografiak
- Bularreko patologiaren unitatea
- Menopausia
- Haurdunaldiaren kontrola
- Zitologiak
- Etab.

Profesionalen osatutako taldea emakumearen zerbitzura

Doktoreak: **CRISTOBAL ESTOMBA GOMEZ MURGIENDO OTALORA RUIZ**



Zerkaosteta, 17 etxabehea. ARRASATE Tfnoa: 79 20 18

TELEBISTAREN TXOKOA

PROGRAMAZIOA



Zaldibarko Porra jokuan

Hasi da Zaldibarko porra. Astelehenero, Mondrasport saioan, txapelketako multzo bakoitzetik talde bat aukeratu da eta partehartzaileek lau talde horiek galdu, irabazi ala berdindu egingo duten asmatu eta idatzi beharko dute Kajoi,

Arrasate Kirolak eta Ekaitzen dauden txarteltxo batzuetan eta hamabostean behin, Iban Lizarralde eta Ion Etxebarriak, bi txartel aterako dituzte. Saria Athletic, Realala Eibar futbol taldeen partidu baterako bi sarrera izango dira.

KOMIKIA

Hi irakurridok hau?? OIN ULERTZEN JAT ZEGATIK MARRAZTEN GAITUEN BETI POSTURA BERDINETAN

GAUR GOXIEN DISKUTIRU JUNT BERARE KIN HORRETAZ ETA ABIXU BAT EMUN JUTZENAT BELARRIXEN

BA OIN BE ARKENENGO ORDUEN JABIK

ALTE HORREIK?? K ETE DITUK BA??

AKIK PATIEK

UTENA ENTE DUKEN

Grain eta Mamen

KOLABORATZAILA GANORABAKO HAUEK...

Aste Gazte egilearenak. Azkenen letra da asteazken arratsaldeko baino lehenago erredakzioan edukitua. Amaia Jauregi-arburu. Abizen luzeak eta bere uter-ak aste horretakoak. Izak ten dira, prestatuta sartu beharrekak.

Parrokoia Kolaborazioak. Mami tabernan urrutitu, laurra botetik auzo-ditu, laurra botetik auzo-ditu, egiteko bezperako gaucan botetik. Hurrengo egunean tabernakooi ate jolai ibili behar lehenariena argitara tu aiti bada.

Iber Bazamidiar. Sarrutan atara dugu oheak astelehen goizean.

Daniel Galkolea, komikigile orain gutxura atie. Komikigile mundialak. Komikigile orain gutxura baino beti gogoratu behar ekartzeko zuela. Behin edo behin, tozua aldatu, eta erretorikak kaleratu izan dira.

PROGRAMAZIOA

ATB

GANORABAKOIA

Zaguzar.



22 Ostirala
13.30etan
Albiste aurrerapena
20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
9.30etan
Astebete
Gaia:
Baserriak badu etorkizunik?
Elkarrizketatua: Balentin Gabilondo, Deba Garaiko Mendi Nekazaritzako lehendakaria.

25 Astelehena
13.30etan
Albiste aurrerapena
20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
21.30etan
Mondrasport

26 Asteartea
13.30etan
Albiste aurrerapena
20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
21.30etan
Barrelekaixoka

27 Asteazkena
13.30etan
Albiste aurrerapena
20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
21.30etan
Nor Nori Rock

28 Osteguna
13.30etan
Albiste aurrerapena
20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
21.30etan
Elkartean

29 Ostirala
13.30etan
Albiste aurrerapena
20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
21.30etan
Astebete

Etxe-Aundi

1. PLATERA

Bi plater aukeran || *Etxeko gosoteria*

2. PLATERA

Haragia edo arraina || *Etxeko ardo gorria eta beltza*
Kafea

Guztira 2.500 pta. (B.E.Z. barne)

SOLUZIOAK

Akordio
Joroffitkoa:
TNT, 14. Oa, 18. Ra, 19. EB.
(Ald.) Ihan, 7. Ka, 8. Alargun, 13.
3. Si, 4. Iniziala, 5. (Ald.) Lara, 6.
Bertikalak: 1. Bernardo, 2. Agurain,
21. Laban.
15. Rami, 16. Ag, 17. Ditare, 20. On.
nahal, 10. Nu, 11. Ira, 12. Artzanor,
Horizontalak: 1. Basilika, 9. Egi-

Etxebizitzak

- **Jose Luis Iñarra kalean garaje plaza** alokatzen dugu. Tfnoa: 79 36 79.
- **Etxea erosiko nuke.** Tfnoa: 77 00 77. Antonio.
- **Gela bat alokatzen da bi ohekin.** Tfnoa: 79 07 73.
- **Pisua alokagai** ikasle edo irakasleendako. Tfnoa: 79 39 02. Gauko 9etatik aurrera.
- **Bikote bat pisu bila dabil.** Tfnoak: 77 11 70 edo 72 60 62. Gaueko 9etatik aurrera. Agurtzane.
- **Pisua salgai Makatzenan.** Osorik berriztua, berogailuaz. Ganbara, 3 logela, eguzkitsua... Tfnoa: 79 07 64.
- **Bizkaia etorbidean pisua alokatzen da.** Tfnoa: 77 14 24 / 76 17 38.
- **Etxebizitza salgai Makatzenan.** Tfnoa: 79 99 72.
- **Etxebizitza salgai, Uribe auzoan.** Tfnoa: 79 70 37. 7etatik aurrera.
- **Etxebizitza salgai Ferixalekuan.** Tfnoa: 79 01 42. Dei egin 8etatik aurrera.
- **Arrasaten gela baten bila nabil** edo pisua osatzeko jendea nahiko nuke. Tfnoa: (94) 461 41 86.

Lana

- **Emakumea prest** umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tfnoa: 79 73 83.
- **Pertsona euskalduna** behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Dei egin gaueko 8etatik aurrera. Tfnoa: 77 13 30.
- **Emakumea prest** umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tfnoa: 79 07 73.

- **Neska gaztea mekanografian** titulatu eta informatikako ezagupenekin (Datu basea, Word-Perfect, MS-Word, Lotus). Tfnoa: 79 84 31.
- **Emakumea gertu umeak** zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tfnoa: 79 76 45.
- **Andra gereontologian** diplomatua eta erizain laguntzailea pertsona nagusiak zaintzeko prest. Tfnoa: 79 34 53.
- **Enpresa zientzietan** lizentziatuak matematika eta kontabilitateko klase partikularrik emango lituzke. Esperientziaduna. Tfnoa: 79 16 19.
- **Kontzertuen iluminaziorako**, 25 urtetik gorako, gidatzeko agiriak eta 2 urteko esperientzia duen pertsona behar da. Tfnoa: 79 67 25.
- **Neska esperientziadunak** umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko lituzke. Tfnoa: 79 53 57. Gaueko 9etatik aurrera.
- **Neska gertu umeak zaindu** eta etxeko lanak egiteko. Tfnoa: 79 93 17.
- **Euskaraz, ingelesez eta gazteleraz** edo beste hizkuntza batzutan ipuin personalizatuak egiten dira. Tfnoa: 79 47 54.
- **Marrazketa diedrikoaren klaseak** jasoko nituzke. Euskaraz ahal bada. Tfnoa: 79 32 10. Iratxe.
- **Ileapaindegian diplomadun** neska esperientziaduna lan egiteko prest. Tfnoa: 79 97 81.
- **Etxeko lanak egin**, umeak zaindu edo bulegoak garbitzeko esperientziadun neska gertu. Tfnoa: 79 31 44. Mirian.
- **Emakumea behar da umeak** zaindu eta etxeko lanak egiteko. Goizeko orduak bakarrik. Tfnoa: 79 83 89. Dei egin gaueko 8etatik aurrera.
- **Enpresa zientzietan** lizentziatua klase partikularrik emateko prest. Tfnoa: 79 06 31.
- **Neska prest umeak zaindu** eta etxeko lanak egiteko. Tfnoa: 79 37 09.
- **Klase partikularrik ematen dira.** Tfnoa: 77 02 42.

Salerosketak

- **20"ko aluminiozko mountain bike salgai.** Shimano Deore LX eta osagarri asko. Tfnoa: (989) 58 64 46.
- **Irratizale** Walkie Talkie eta emisora salgai. Emisora: AMko 40 kanaleko emisora basiko berri-berria, 7.000 pta. Walkie Talkie: AM-FMko 40 kanaleko Stabo SH 7700 markakoa, "porra" antena berriarekin eta fundarekin, 13.000 pta. Tfnoa: 79 02 59. Raul.
- **Singer josteko makina** mueble moderno eta guzti. Merke. Tfnoa: 79 45 58.
- **Lapurren aurkako alarma salgai.** Denda edo tabernetarako aproposa. Tfnoa: 79 65 31.
- **Gorputz erdiko solarium-a salgai.** Tfnoa: 79 23 58.
- **Osagarri guztiak dituen sukaldea salgai.** Merke merkea. Tfnoa: 79 89 07. Kandi.
- **Gela baterako bitrina txiki bat erosiko nuke.** Tfnoa: 79 23 58.
- **Bebe Confort-eko** Turbo Twin birkiendako kotoxa salgai. Prezio eta egoera onean. Tfnoa: 10 23 22.
- **R-5 salgai.** Bost atekoa eta 10 urte ditu. 90.000 pta. Tfnoa: (94) 681 98 65. Gaeuz.
- **"Documentos", "Enciclopedia Larousse", "Enciclopedia Vasca" eta "Historia de Euskal Herria"** salgai. Tfnoa: 79 59 43.

Denetarik

- **Arrasateetik Gasteiza goizeko 8etan** egunero kotexez joan nahi baduzu dei egin 79 95 35 tfnora. Rakel.
- **Betaurrekoak galdu ditut** Abaroa eta Garibai autobus geltokiaren artean. Tfnoa: 79 36 93.

Aste Gazte

Auzolandegiak

• Aurtengo udako auzolandegietan parte hartzeko, izenematea apirilaren 9tik 19ra egin daiteke. Aurtun ere plazak zozketa bidez emango dira. Adina: 15-30 urte bitartekoei zuzendua. Izenematea Gazte Bulegoan.

Dirulaguntza deialdia

• Herriko kultur eta gazte taldeei zuzendutako dirulaguntza deialdia: dokumentazioa aurkezteko epea martxoaren 29an amaituko da. Aurtun inprimaki

bat bete beharko dute talde guztiek.

Lana

• Gipuzkoako Hezkuntza Ordezkaritzak, unibertsitateaz kanpoko lehen hezkuntzako (OHO) Herri Ikastetxeetarako ordezkapenetarako izengaien zerrenda ireki du. Espezialitateak: ingelesa, gorputz hezkuntza, entzumena eta hizkuntza eta eskolaurrea. Epea: martxoaren 11n hasita, mugagabeko epea.

• Arabako Foru Aldundiak, kiroletako espezialista lanpostu

bat eta muntaia eta zerbitzueta-ko espezialista bi plaza kaleratu ditu. Epea: martxoak 31.

Bekak

• "Agrupación Mutua" Fundazioak, "zahartzaroko arazoak" gaia modura duen prestakuntza beka bat deitu du. Lizentziatu eta diplomatuei zuzendua. Epea: ekainak 30.

• "Comisión de las Comunidades Europeas", "Hitzaldien interpretatzaileak" prestakuntza beka deitu ditu. Lizentziatuei zuzendua. Hiru hizkuntz menperatzea derrigorrezkoa da. Epea: 1996ko urtean zehar.

"Gazteriak bizitza urre garbia balitz bezala kontsideratzen du; zaharrek, berriz, aleazioa dute gogoan."

EDWARD CARPENTER.

IDAZLE BRITANIARRA



Informazio gehiago: GAZTE ZERBITZUA Tfnoa: 77 00 65

ETXE MOBEL

MUEBLES ALTZARIAK

LOGELETAN espezializatutako merkatal zentrua

46 urteko esperientzia duten profesionalak sortu eta zuzendutakoa



Dena ETXEMOBELen.
Batetik, kalitate eta diseinurik
handieneko logelak, garantia osoarekin.
Bestetik, logela merkeen artean,
merkeenak.

**BENETAN
HARRIGARRIA!**

LARUNBAT ARRATSALDETAN ZABALIK!



**Iritsi da udaberria
TROKOra.**

Zatoz gazte eta helduendako
jantzi eta osagarrietan
udaberriak dakartzan
berrikuntzak ezagutzera.

Erdiko Kale, 14 ARRASATE
Tfnoa: 79 46 94

Twingoak
mundua
bere
kolorez
jazten du.



twingo



Eta orain

finantzaketa harrigarria:

eskura ezazu Twingo bat egunean 650 pta.gatik



MECA